



Sopelako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

**I FASEA:**

## **HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA**

Informazio eta diagnosi dokumentuaren laburpena



Sopelako Udala  
Ayuntamiento de Sopela  
TERRITORIO  CIUDAD SLP  
**TAPER**





# KREDITUAK.

## IDAZKETA-TALDE TEKNIKOA:

Sopelako Udalak aginduta, lan hau Sopela Garatuz aldi baterako empresa-elkarteak egin du, idazketa-talde honen ardurapean:

### Zuzendariak:

Manuel Ángel González Fustegueras.

Arkitektoa eta Hirigilea.

Sebastián Olmedo Pérez

Lurralde Antolamendua Zuzenbide espezializatuan lizentziaduna, Hirigintza Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Ingurumena

Jon Ander Azpiaz Juaristi.

Arkitektoa.

Unai Gómez Arriaran.

Arkitektoa.

### Koordinatzaileak:

Reyes Pata Vila.

Arkitektoa. Lurraldearen Antolamenduan eta GIS Teknologian aditua.

### Gizarte Zientzietan aditua. Herritarren parte-hartzea. Generoa:

Miguel González Márquez.

Hiri Antropologian doktorea eta Historian lizentziaduna.

### Ingurumen-teknikaria:

Damián Macías Rodríguez.

Geografian lizentziaduna. Sevillako Unibertsitateko doktorea.

### Azpiegiturak, Hiri-zerbitzuak eta Mugikortasuna:

Indalecio de la Lastra Valdor

Bide, ubide eta portuetako ingeniaria.

### Talde Teknikoa:

Juan Carlos Puerto Andares

Higiezinaren aktiboen arkitekto analista. Katastroaren kudeaketan, balorazioetan eta SIG teknologian aditua.

Juan Antonio Lobato Becerra.

Arkitektoa eta soziologoa. Hirigintza-zuzenbidean aditua.

María de la Luz Frías Piñero.

Arkitektoa. Hiri ingurunea. Informazio geografikoko sistemak.

Andrea Goikoetxea Galán.

Arkitektoa.

Garazi Robredo Manero,

Arkitektoa.

Victoria Ruiz Pomar.

Ekonomialaria

Oscar Medina Márquez

Geografoa.

Juan Manuel Benítez Domínguez.

Geografoa.

Juan de Dios Olmedo Pérez

Infografiako eta diseinu grafikoko teknikaria.

Francisco Javier Pedro Jiménez

Eraikuntzako eta delineazioko goi mailako teknikaria.

Cristóbal Muñoz García.

Eraikuntzako goi mailako teknikaria.

**Talde Kolaboratzaileak**

Hiritik-at

Herritarren parte-hartzea. Generoa.

Biok Comunicación

Komunikazioa

Anartz Ormaza Ugalde

Euskara aholkularia

# AURKIBIDEA

0.	SARRERA.....	7
1.	LURRALDE-KOKAPENA ETA UDALAREN EGITURA OROKORRA .....	9
2.	NATURA-PATROIAK ETA LURRALDEKO GEOGRAFIA-BALDINTZAK. INGURUMEN- LOTURAK. ....	11
2.1.	KLIMA ETA KLIMA-ALDAKETARI AURRE EGITEKO AUKERAK.....	11
2.2.	GEOMORFOLOGIA-FORMAZIOAK ETA GAILUR KATALOGATUAK.....	11
2.3.	GEOLOGIA INTERESDUN LEKUAK .....	11
2.4.	UR NATURALAK: LURRAZALEKO ETA LURPEKO HIDROLOGIA. ....	13
2.5.	LANDAREDIA ETA FLORA .....	16
2.6.	FAUNA .....	19
2.7.	ESPazio BABESTUAK ETA EKOLOGIA INTERESEKOAK.....	19
2.8.	ARRISKU NATURALAK ETA TEKNOLOGIKOAK.....	22
3.	LURRALDEAREN BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK. BIZTANLERIA, ETXEBIZITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.....	27
3.1.	BIZTANLERIA: EGITURA ETA ETXEAK .....	27
3.2.	EREDU EKONOMIKOA, ENPLEGUA, ERRENTAK ETA ZAURGARRITASUNA.....	28
4.	LURRALDEAN ERAGINA DUTEN LURRALDEAZ GAINDIKO PLANGINTZAREN ONDORIOZKO BALDINTZAK.....	31
4.1.	SOPELA ETA INDARREAN DAGOEN BILBO METROPOLITARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA .....	31
4.2.	2019KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK .....	37
4.3.	BILBAO METROPOLIARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENA .....	45
4.4.	BILBO METROPOLITARRAREN EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK .....	47
4.5.	SOPELA ETA NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA .....	52
4.6.	IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA (ISURIALDE KANTAURIARRA).....	53
4.7.	INDARREAN DAGOEN ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA .....	55
4.8.	EAE-KO ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN BERRIKUSPENA, KLIMA ALDAKETAREN ERROKARI EGOKITZEKO .....	57
4.9.	HEZEGUNEAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.....	60
4.10.	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUETARAKO LURZORUA SORTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.....	60
4.11.	EAEKO A TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALA.....	60
4.12.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZIKLETA-IBILBIDEEN PLAN ZUZENTZAILEA.....	61
4.13.	BIZKAIKO BIZIKLETA BIDEEN 2023-2025 LURRALDE PLAN SEKTORIALA. HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA.....	62
4.14.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN HIRUGARREN PLANA 2017-2028. ....	63
4.15.	EUSKADIKO 2030ERAKO GARRAIO JASANGARRIAREN PLAN ZUZENTZAILEA. ....	63
4.16.	KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ZATIAREN UHOLDE-ARRISKUAK KUDEATZEKO PLANA. 2015-2021. ....	64
4.17.	ENERGIA EOLIKAREN LURRALDE PLANA.....	64
4.18.	EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA (IDAZKETA LANETAN) .....	65
4.19.	SOPELA URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN PLANEAN .....	65
5.	BERRIKUSTEN DEN PLANGINTZA OROKORRA. HORREN GARAPENAREN ETA GAUZATZEAREN AZTERKETA.....	69
6.	ARKEOLOGIA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREAREN BALIOEN BABESA GAUR EGUN. EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROKO DATU BASEETAN ERREGISTRATUTAKO ELEMENTUAK.....	79
6.1.	ARKITEKTURA-ONDAREA.....	79
6.1.1.	EUSKAL KULTURA ONDAREAREN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINAK .....	79

6.1.2.	TOKIKO BABESERAKO PROPOSAMENENKO ONDASUN HIGIEZINAK.....	79
<b>6.2.</b>	<b>ARKEOLOGIA-ONDAREA .....</b>	<b>80</b>
6.2.1.	SAILKATUTAKO KULTURA-ONDASUNEN EAE-KO ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO ARKEOLOGIA-GUNEAK, MONUMENTU-MULTZO KATEGORIA DUTENAK .....	80
<b>7.</b>	<b>BESTE UDAL-PLANAK ETA –AZTERLANAK.....</b>	<b>81</b>
7.1.	SOPELAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA .....	81
7.2.	TOKIKO AGENDA 21-EN EKINTZA-PLANA BERRIKUSTEA .....	84
<b>8.</b>	<b>UDALERRI MUGAKIDEAK. PLANGINTZA ETA INGURUABARRAK. ....</b>	<b>87</b>



## SARRERA

Sopelako plan orokor berria egiteko prozesuaren Lehen Fase hau “Aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa” Planaren lehenengo dokumentu arautuaren aurreko fasea da. Fase honetan bildu behar dira Plana osatzeko ondorengo faseetan, hau dela bestea dela, kontuan hartu beharko diren aurreko loturen eta baldintzatzaileen multzo osoa.

Hala ere, azpimarratu behar da fase honekin ez dela amaitutzat eman behar hirigintzainformazioaren prozesua, baizik eta etengabeko tresna lagungarri gisa lagunduko zaiola Planari. Beraz, diagnostikoa ez dago erabat amaituta, eta, gutxienez, HAPO hasieran onartu arte jarraituko da garatzen.

Fase hau egiten eta aurkezten den bitartean, zabalik jarraituko du parte-hartzeko aldiak, dokumentu honek aberasten lagunduko duena; beraz, herritarrei ere ezagutarazi behar zaie hau, haien iritziekin eta gogoetekin alderatzeko.

Webgunean azaltzen den dokumentu hau informazio-fasean garatu diren lanen laburpena da.

Edukiak honako atal hauek ditu:

1. LURRALDE-KOKAPENA ETA UDALAREN EGITURA OROKORRA
2. NATURA-PATROIAK ETA LURRALDEKO GEOGRAFIA-BALDINTZAK. INGURUMEN-LOTURAK.
3. LURRALDEAREN BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK. BIZTANLERIA, ETXEBIZITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.
4. LURRALDEAN ERAGINA DUTEN LURRALDEAZ GAINDIKO PLANGINTZAREN ONDORIOZKO BALDINTZAK.
5. BERRIKUSTEN DEN PLANGINTZA OROKORRA. HORREN GARAPENAREN ETA GAUZATZEAREN AZTERKETA.
6. ARKEOLOGIA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREAREN BALIOEN BABESA GAUR EGUN. EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROKO DATU BASEETAN ERREGISTRATUTAKO ELEMENTUAK.
7. BESTE UDAL-PLANAK ETA –AZTERLANAK
8. UDALERRI MUGAKIDEAK. PLANGINTZA ETA INGURUABARRAK.
1. LOTURA ETA BALDINTZATZAILE GEOGRAFIKO, SOZIOEKONOMIKO ETA INDARREAN DAGOEN LURRALDE- ETA SEKTORE-PLANGINTZAREN LABURPENA.


2. UDALEKO PLAN "ESTRATEGIKOEN" LABURPENAK, HAPOn idazketa prozesuan kontuan hartu beharrekoak.





## LURRALDE-KOKAPENA ETA UDALAREN EGITURA OROKORRA

Sopelak 840 hektareako azalera du, eta 2022an 14.635 biztanle zituen. Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionalean eta Uribealdea Eskualdean (edo Plentzia-Mungian) dago, izan ere, azken horren burualdea da. Iparraldean, Kantauri itsasoarekin muga egiten du, bertan itsaslabar ikusgarriak nahiz hareatzetako hondartzak ditu; ipar-ekialdean, aldiz, Barrikarekin; ipar-mendebaldean, Getxorekin; hego-ekialdean, Urdulizekin; eta hego-mendebaldean, Berangorekin. Udalerria Gobela ibaiak zeharkatzen du, Ganes mendian (Barrikan) jaiotzen dena, horrek Ganearri izeneko eremua sortu du eta Urko ibarreko hezeguneraino iristen da. Hor elkartzen dira Lemotza eta Saitu ibaiadarrak. Beste erreka batzuek udalerria zeharkatzen dute, eta horietako batzuk itsasora isurtzen dira; esaterako, Iturralde errekatxo txikia, itsasora isurtzen dena Atxabiribil hondartzan edo Peñoian.



**Hirigintzaren bilakaera oso baldintzatuta egon da zenbait lurralde-ardatzengatik; hala nola, BI-634 errepidea** (Lemotza ibaiarekiko paralelo igarotzen dena, eta Urdulizko norabidean Sopela zeharkatzen duena) **eta gaur egungo metro-lerroa**. Horiek hiri-hazkundearen muga perimetrala izan dira, eta dentsitate txikiko bizitegi-garapen modernoagoek soilik gainditu dituzte. Aipatzekoa da Loiola-Asu-Bareño eremuan ia 2 km-ko lerro-muga berria trazatu dela, eta, ondorioz, kalitate handiagoko trantsizioa egin behar dela hirigunearen eta itsasertzeko eremu urbanizaezinaren artean. Gaur egun trenbidea hiri-harresi garrantzitsua da, eta Ibarrearen eta Lizarreren kasuan eragina du, eta hori hobetu beharra dago.

**Udalerriko lurzoru urbanizaezina bitan zatituta dago, udala zeharkatzen duen hiri-lurzoruaren azalera handia dela-eta.** Lehenengo zatia hegoaldean dago, Ugeraga eremuan, Torreko erreka bi ertzetan hedatzen dena, hori Sopelako lurzoru urbanizaezinaren hedapen handiena da. Horren zati handia basogintzarako, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen


da. Hirigunearen iparraldean, babestu beharreko gune eta ekosistema ahulenak daude, gainera, San Andresen hego-ekialdean ekoizpen-ahalmen handieneko belardiak ere badaude.

Erdigunerako sarbide nagusia BI-634 errepidea da, Berangotik. Beste sarrera nagusia Loiolako lotunetik dago, Gobela ibaira desbideratuta, Urgitxieta kaletik BI-3124 errepidera iristeko. Lotura hori duela hamarkada bat baino gehiago jarri zen martxan, eta, horri esker, erdigunera sartu nahi duten ibilgailuak edo Akilino Arriola kaletik Urdulizko norabidean doazenak, Larrabasterrako zeharbidetik igarotzea sahiestu da. Nolanahi ere, **bai Loroño kaletik, bai Akilino Arriola kaletik, Urdulizeranzko eta Mungiaranzko trafikoak hirigunea zeharkatzen du Sabino Arana kaletik, eta horrek pasoko trafiko handia dakar.**

**Oinezkoen espazioen sarea oso zabala da, baina ez da kalitate handikoa,** herri osoan ibilgailuen bideek duten nagusitasunak baldintzatzen baitu. **Gauza bera gertatzen da bidegorri-sarearekin;** izan ere, Sopelako hondartzak Getxoko Areeta auzoarekin lotu arren (Bizkaiko Bizikleta Plan Zuzentzailea - 4. ardatza), ez dago behar bezala barneratuta hiri-bilbean, izan ere, sare horretatik kanpo daude udalerriko ekipamendu gehienak eta metro-geltokiak.

Sopelak berdeguneen, eremu gogorren eta oinezkoen azalera handia du. Bere hondartzak nabarmentzen dira: Barinatxe, Arri-Atxabiribil eta Meñakoz, baita horiei lotutako espazio libreak ere. Espazio libreen multzoa gainerako tokiko espazio libreek eta oinezkoenak osatzen dute, gehienak bizitegi-eremuetako espazio txikiak dira eta, kasu askotan, atxikitako ekipamendurik gabekoak. Hori dela eta, hiri-sareko espazio libreen azalera oso handia izan arren, espazio horiek ez daude modu kualitatiboan lotuta.

S o p e l a k ekipamendu ugari ditu hirigunean, hala nola: komunitarioak, kirolkoak, osasunekoak eta hezkuntzakoak, bestalde, urbanizazio berri enetan lurzorua gordeta du, ekipamendu berriak garatzeko. Ikastetxeak hiri-sarean barneratuta daude, Iberre, Larrabasterratik gertu, eta Zipriñe ikastetxea herriaren erdian. Bi kasuetan, instalazioak handitzea konplexua denez, HAPOk Hezkuntza Sistema Orokorreko lurzoru berriak aurreikusi beharko ditu, egungo eskaerei erantzuteko, gainera, beharrezkoa izanez gero, Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren izapidetzea aurreratu ahal izango da.



*Ekipamenduen eta espazio libreen sekuentzia nagusiak*

# 2/

## NATURA-PATROIAK ETA LURRALDEKO GEOGRAFIA-BALDINTZAK. INGURUMEN-LOTURAK.

### 2.1. KLIMA ETA KLIMA-ALDAKETARI AURRE EGITEKO AUKERAK

Euskadiren Atlantikoko isurialdearen klima Cfb ozeanikoa da (epela, urtaro lehorrik gabekoa, uda epelarekin), Iberiar Klima Atlasen (Estatuko Meteorologia Agentzian, 2023) jasotako Köppen klima-sailkapenaren arabera.

Klima-aldaketak EAE osoan izango dituen ondorio nagusiak temperaturen igoera eta batez besteko prezipitazioen beherakada dira. Azken horiek urtean egun gutxiagotan izango dira, baina euren intentsitatea nabarmen handituko da. Horren ondorioz, ibai inguruneetan uholdeak izateko arriskua handitu, hirietako bero-boladak areagotu eta lehorsteak ugaritu egingo dira, horrek nekazaritza-jardueretan eragina izanda.

### 2.2. GEOMORFOLOGIA-FORMAZIOAK ETA GAILUR KATALOGATUAK

Azterketa-eremuaren geologia-historiak geomorfologia-formazioak sortu ditu, batez ere kostako dinamikei esker, eta, neurri txikiagoan, Gorbela, Lemotza eta Zaituerreka ubideen ekintzei esker, horiek ekialdetik mendebaldera ebakitzen baitute udal-geografia. Beste formazio interesgarri batzuk Santa Maria Haitzen topografiagatik eta Saierriko muinengatik ezagunak dira. Bertan dago Munarrikolandako gailur katalogatua.

Kostaldearen aurrealdeari lotutako formazioen artean, itsaslabarrak, abrasio-plataformak, antzinako hare metaketak eta itsasertzeko hondartza aipatu behar dira. Barnealdean, Sopolako erreka nagusien kuaternarioko formazioak daude.


### 2.3. GEOLOGIA INTERESDUN LEKUAK

Kostaldearen aurrealdean, EAEko katalogoaren arabera, geologia intereseko hiru leku inbentariatu daude, eta Geologia-intereseko Puntuen ondoan, geologia-azaleratzeen eraginpeko eremu zabala dago.

- GIL-35 Meñakozeko pillow labak. Meñakoz hondartzaren mendebaldeko muturreko labak Euskal-kantauriar Arroko goi kretazeoko bolkanismoaren kolada adierazgarrietakoa dira. Azaleratze hori, batez ere, labarrean estalitako kuxin-laben (pillow-labak) isurketa ikusgarriagatik nabarmentzen da.







**GEOMORFOLOGÍA Y ACTIVOS DE INTERÉS GEOLÓGICO t.m. Sopela**

- Cimas Catalogadas CAPV
  - Lugares de Interés Geológico (37-44-99)
  - Puntos de Interés Geológico
  - Zona Influencia afloramiento Geológicos
- Formaciones geomorfológicas**
- Acantilados de menos de 10 m
  - Aluvial
  - Depósito de arena antiguo
  - Plataforma de abrasión
  - Playa
  - Playa de cantos
  - Zona de excavaciones o/ y escombreras

- GIL-44 Sopelako K/T muga. Muga tupak kareharri bihurtzeko litologia-aldaketan dago. Ziklikotasun estratigrafikoa antzematen da Daniar kareharrietan.



- GIL-90 Barrikako Paleorrassa-la Galea. Inbentarioan interes handikotzat jasota dago bere geomorfologia-balioagatik. Bere eraketa itsas higadurarekin lotura du, eta horrek arroken gainean gainazal laua sortzen du, "rasa" izenekoa, olatuek eraginda. Gaur egun, Sopelako kostaldean ikusten da, itsasbeheran labarren azpian.



## 2.4. UR NATURALAK: LURRAZALEKO ETA LURPEKO HIDROLOGIA.

### Lurrazaleko urak.

Eremua 'Ibaizabaleko Unitate Hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan. Arroko ur-masa nagusia 'Gobela-A (ES111 R074030)' da. Horrek kantabriar-atlantikoko kare-ibaiaren tipologia du, eta oso aldatuta dago. Iparraldetik hegoalderantz doa, eta haren trazadura lurpean igarotzen da udalerriko puntu askotan. Erreka nagusi horrez gain, udal osoan, lehenengo mailan Zaituerreka erreka ibilgua ere kontuan hartu behar da, horrek Saijerri eta Lemotza erreken hegaletako isurketa-urak jasotzen ditu. Hirurek Berangoko sarreran bat egiten duen hiruhortza osatzen dute.

Iturralde errekek bakarrik isurtzen ditu urak Butroera, udalaren iparraldeko sektorean, eta aurrekoek Nerbioi ibaira.

Gobela-A masak ez du betetzen ekologia-potentzial oneko helburua, makroornogabeen komunitatea gutxituta eta desegituratua baitago. Bestalde, Gobela ibaia, Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroan, "Espezie mehatxatuen interes bereziko eremu" identifikatzen da, batez ere arrain hiruarantzarentzat (*Gasterosteus aculeatus*).

### Lurpeko urak.

Lurpeko ur-masak akuifero ez kontsolidatu detritikoei edo mistoei dagozkie, Interes Hidrogeologikoko Eremu adierazitako alubialen eta alubioi-kolubialen metaketak [GZ037-4-26 kodedunak]. Duna-eremuak eta hondartza-metaketak ere interes hidrogeologikotzat jo dira. Hala, Substratu Litologikoaren Iragazkortasun Maparen eta Akuiferoen Zaugarritasun Maparen arabera (biak SCA-EAEk eginak), akuiferoaren zaugarritasun handieneko eremuak udalerraren azalera osoaren % 21 hartzen dute, eta azalera handiena Sopelako erdialdeko eremuan dago.





### HIDROLOGÍA SUPERFICIAL Y MASAS SUBTERRÁNEAS t.m. Sopela

— Corrientes superficiales

▨ Zonas de Interés Hidrogeológico


#### Sectores Masas de Aguas Subterráneas (Sinclinori de Bizkaia)

▨ Cuaternario\_Getxo-Bergara

▨ Santa Marina

▨ Unbe-Fadura





**VULNERABILIDAD DE ACUÍFEROS t.m. Sopela**

- |                                   |                             |
|-----------------------------------|-----------------------------|
| 0 - Sin vulnerabilidad apreciable | 4 - Vulnerabilidad alta     |
| 1 - Vulnerabilidad muy baja       | 5 - Vulnerabilidad muy alta |
| 2 - Vulnerabilidad baja           | — Corrientes superficiales  |
| 3 - Vulnerabilidad media          |                             |

## Kostaldeko urak.

Kantauri Itsasoak inguratzen du Sopela, eta 6 km inguruko kosta-lerroa du. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren (2021-2027), Espainiako zatiaren, Plan Hidrologikoak definitzen duen kostaldeko zati horri “Kantabria-Matxitxako” deritzo. URA erakundeak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio-uren eta kostaldeko uren ekologia-egoeraren jarraipen-txostenaren arabera, Kantabria-Matxitxako itsasertzeko ur-masa egoera onean diagnostikatuta dago, egoera ekologikoa zein kimikoa ondo daudelako.

## 2.5. LANDAREDIA ETA FLORA

Landaredi potentziala honako landaredi-mota hauek osatzen dute: haltzadi kantauriarra, arroka silizeoekin lotutako komunitate-multzoa, artadi kantauriarra, pagadi azidofiloa, ameztia, erkamezti-harizti kaltzikola (*Quercus pubescens*-ekin), harizti azidofiloa eta harizti baso misto atlantikoa, itsaslabarretako landaredia, kostaldeko hareatzetako landaredia eta itsas paduretako landaredia. Hala ere, gizakiaren esku-hartze handiaren ondorioz, lurralde horren zati handi batean, landaredi-mota hori oso azalera txikietan lekuko moduan ageri da, hala nola: hariztiak eta haltzadiak, edo artadi kantauriarra, kasu horretan, sarbide gatza duten lekuetan eta agrologia-balio txikiagoko lurzoruetan soilik daude.


EAEko 2022ko baso-inbentarioak masak Saierriko eta Santa Marinako hegaletan eta gailurretan kokatzen ditu, eta baso zein sastraken aztarnak, aldiz, Lemotzako burualdean eta San Andres ermitaren inguruan.

Konsultatutako dokumentu-iturrietan, udalerrian mehatxatutako 8 flora-espezie jasota daude, guztiak Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan daudenak. Ondorengo taulan espezie horiek jaso dira, beren babes mailarekin, hainbat tresnaren arabera:

Espezieak	EMEK	EMEZ	EMEK*	HZ
<i>Culcita macrocarpa</i>	EN	X	-	II
<i>Olea europaea var sylvestris</i>	EN	-	-	-
<i>Lavatera arborea</i>	VU	-	-	-
<i>Woodwardia radicans</i>	VU	X	-	II
<i>Cochlearia danica</i>	R	-	-	-
<i>Dryopteris aemula</i>	R	-	-	-
<i>Pinguicula lusitanica</i>	R	-	-	-
<i>Ilex aquifolium</i>	IE	-	-	-

EMEK: Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa, EMEZ: Espezie Mehatxatuen Espainiar Zerrenda  
EMEK\*: Espezie Mehatxatuen Espainiar Katalogoa HZ: Habitaten Zuzentaraua Eranskina






**INVENTARIO FORESTAL 2022 t.m. Sopela**

**Formaciones**

















- Bosque mixto atlántico
- Encina

- Eucalipto globulus
- Pino pináster
- Pino radiata
- Plantaciones de frondosas variadas





**Formaciones de Vegetación y ámbitos de recuperación de especies amenazadas-2019 t.m. Sopela**

- |   |  |  |
|---|--|--|
|  Planes recuperación de flora amenazada      |  Brezal atlántico dominado por Ulex sp.   |  Helechales atlánticos y subatlánticos, colinos |
|   |  Brezal costero de Erica vagans           |  Lastonares y pastos del Mesobromion            |
| <b>Vegetación</b>   |  Coníferas recientemente taladas          |  Plantaciones de Eucaliptus sp.                 |
|  Aliseda ribereña eurosiberiana              |  Dunas móviles con vegetación embrionaria |  Plantaciones de otros frutales                 |
|  Bosque acidófilo dominado por Quercus robur |  Encinar cantábrico                       |  Plantaciones de Pinus pinaster                 |
|  Bosques naturales jóvenes de frondosas      |  Frondosas recientemente taladas          |  Plantaciones de Pinus radiata                  |

Saijerri Muinoetan, Ikazako pinudian, *Daphne cneorum* L espeziearen berreskuratze-eremua dago. Espezie Mehatzatuen Euskal Katalogoaren arabera, espezie hori galzorian dago.



*Daphne cneorum* L

## 2.6. FAUNA


Fauna-komunitate nagusiak hiri-inguruneekin lotutakoak dira. Hiriguneetan, baita eraikinen kontzentrazio handietan ere, bizitzera egokitu diren espezieak dira. Hala ere, eremua zabala eta askotarikoa da, hala, habitat desberdinak bateratzen ditu, besteak beste: kostaldeak, larreak, belardiak, ibaiak, basoak eta horietako bakoitzak berariazko fauna-komunitateak ditu. Aipatutako esku-hartze mailaz gain, garrantzi bereziko espezedun fauna-komunitateak daude EAEn, mehatxupearan daudenak.

- Arrain hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*) eskuinaldeko ibilguetan presentzia handiagoa da.
- Ekaitz-txoria (*Hydrobates pelagicus*), eremu funtzionalean bere habitata Billano lurmuturrean eta izen bereko uhartean dago (Gorliz).
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), Sopela zeharkatzen duten ibilgu batzuetan egon daiteke.
- Ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*), kostaldeko hegaztia, Uribe Kostan egon daitekeena, bereziki Sopela, Gorliz eta Plentzia artean.

## 2.7. ESPAZIO BABESTUAK ETA EKOLOGIA INTERESEKOAK

Sopelan ez dago Naturagune Babestuen Sareko (NBSeko) espaziorik, ezta Natura 2000 Sarekorik ere: KBE, HBBE edo BIL. Hala ere, EAeko Katalogo Irekiko Natura Intereseko Espazioa dago: Punta Galea-Barrika. Hori 430 hektarea inguruko eremua da, Getxo, Sopela eta Barrika artean kokatua, eta Getxok hartzen du azalera handiena (% 46). Itsaslabarrak dira, eta itsasertzeko lerroa zuzena eta uniformea da mendebaldean. Kareharri hareatsuak eta Paleozenoko tupak 50 metro inguru altxatzen dira itsasoaren gainean. Itsasorako jauzia malkartsua da, eta itsasertzeko paisaia ederra osatzen du, ikuspegi ugari eta askotarikoak dituena.






**FAUNA AMENAZADA Y ZONA DE INTERÉS NATURALÍSTICO t.m. Sopela**

- Mustela lutreola: zona de mejora
- Catálogo Abieto de la CAPV: Punta Galea-Barrika
- Gasterosteus aculeatus





**ESPACIOS DE INTERÉS NATURAL y HÁBITATS DE INTERÉS COMUNITARIO (Directiva Hábitats)-2019 t.m. Sopela**

☐ Catálogo Abieto de la CAPV: Punta Galea-Barrika

- Lugares de Interés Geológico
- Puntos de Interés Geológico

**Hábitats de Interés Comunitario**

**Hics Prioritarios**

- Brezales secos atlánticos costeros de Erica vagans.
- Prados secos seminaturales y facies de matorral sobre sustratos calcáreos (Festuco-Brometalia) (parajes con importantes orquídeas).
- Bosques aluviales de Alnus glutinosa y Fraxinus excelsior (Alno-Padion, Alnion incanae, Saliccion albae).

**Hics No Prioritarios**

- Bosques de Quercus ilex y Quercus rotundifolia.
- Acantilados con vegetación de las costas atlánticas y bálticas.
- Prados pobres de siega de baja altitud (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis).
- Brezales secos europeos.
- Pendientes rocosas silíceas con vegetación cosmófitica.

Azpirarratzekoak dira, halaber, lehen aipatutako Geologia Intereseko hiru lekuak eta Batasunaren Intereseko hurrengo Habitatak.

Kodea	Habitata
1230	Atlantiko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten itsaslabarrak
4030	Txilardi lehor europarrak
6510	Altitude baxuetako sega-belardi txiroak ( <i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i> ).
8220	Malda harritsu silizeoak, landare kasmofitikodunak
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> basoak
4040*	Kostaldeko txilardi lehor atlantikoak ( <i>Erica vagans</i> )
6210*	Belardi erdi-natural lehorrak eta kare substratuetao sastraka-faziesak ( <i>Festuco-Brometalia</i> )
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> reko baso alubialak ( <i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i> ).

## 2.8. ARRISKU NATURALAK ETA TEKNOLOGIKOAK

### Uholde arriskua

Prezipitazio handiak eta horien ondoriozko uholdeak, beren testuinguru katastrofikoan, arrisku natural larrietakoa dira, eta arriskuan jartzen dute Sopela, pertsonengan, ondasunetan eta zerbitzuetan eragin ditzaketen kalteak eta galerak direla-eta. Uholde-arriskua nabaria bilakatzen da eremu askotan, hori larriagotu egiten da lurraldearen erabilera handituz doalako eta giza kokaguneak uholdegarriak diren eremuetan egiten direlako.

Udalerrian ez dago Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremurik (UAGE), baina badago bat Gobela ibaiaren gainean, Getxori eragiten diona eta udalerrriaren hego-mendebaldeko muturrean eragina izan dezakeena.

### Higadura-arriskua

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSk ez du Sopelan higadura-eremurik definitzen, Iturralde errekatik hurbil dagoen eremu txikia izan ezik.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen higadura-mapak adierazten du higadurak eragin txikia duela Sopelan, landazabaleko eta ibaietako isurietako eremu puntualetan izan ezik. Hala ere, ibilguk eragindako higadura adierazi behar da, ur-lasterraren arraste- edo trakzio-tentsioak ibilguaren hondoa edo ertzak osatzen dituzten materialen erresistentzia gaintzen duenean gertatzen dena. Higadura-mota hori arro hidrografikoan uholde-arriskuarekin estuki lotutako fenomeno da, eta honako ezaugarri hauek ditu: erregimen plubiometrikoa eta hidrologikoa, geomorfologia eta mendi-hegaletan gertatzen diren higadura-fenomenoak (laminarra, errekaetoetan, masa-mugimenduak).


### Akuiferoak kutsatzeko arriskuak

Udalerrian badira lurrazpiko urak kutsatzeko zaugarriak diren eremuak, material detritikoak ardatz dituztenak. Horietan, udal-plangintzak zenbait irizpide ezarri behar ditu, eremu kalteberenetan erabilera desegokiak jartzea saihesteko.

### Baso-sute arriskua

EAEk egindako Lurzoruen Errekortasun-mapan, Sopela, sute-arrisku oszilakorra duten udalerrien artean dago: Handi Moderatua eta Ertain Handia.





**RIESGOS DE INUNDABILIDAD t.m. Sopela**


**Huella Inundable**

- Periodo de retorno 10 años
- Periodo de retorno 100 años
- Periodo de retorno 500 años

**Zona de Flujo Preferente**

- Zona de Flujo Preferente






**RIESGOS DE EROSIÓN t.m. Sopela**

- |               |   |   |
|---------------|---|---|
| Erosion Rusle | ■ | Áreas de riesgo de erosión según PTS Agroforestal |
| ■ Muy Baja    |   |   |
| ■ Baja        |   |   |
| ■ Alta        |   |   |





**EMPLAZAMIENTOS SUELOS CONTAMINADOS t.m. Sopela**

**Actividad**

- Industrial
- Vertedero



## Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruk

Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruk dira, bai jarduera horietan substantzia arriskutsuak erabiltzeagatik, bai horiek sortutako hondakinengatik, lurzoria kutsatzeko aukera handiagoa dutelako. Sopelan, ondorengo irudian adierazita daude industria-jarduerengatik eta zabortegeingatik kutsatutako lurzoruen partzelak.

Abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen du.






# 3/

## LURRALDEAREN BALDINTZA SOZIOEKONOMIKOAK. BIZTANLERIA, ETXEBIZITZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK.

### 3.1. BIZTANLERIA: EGITURA ETA ETXEA

Errolda Jarraiaren (NEI) datuen arabera, **Sopela 2022an 13.627 biztanlerekin hasi zen, aurreko urtean baino 103 biztanle gutxiagorekin. Biztanle horien artean, % 49,7 emakumeak dira eta % 50,27 gizonak.** Beraz, sexuen arteko oreka dago.

Adinaren arabera, egiturari dagokionez, biztanleriaren piramidean antzematen da, oinarria, estua dela, gizarte garatuetan berezko dena. Aipatzekoa da 35 urteko adin-zerrendan jauzia dagoela, bizitegien aldaketa-zikloekin bat datorrena, eta 5 eta 14 urte bitarteko zerrenda ere hazi egin dela, aipatutako aurreko mugimenduekin identifikatzen dena, ugalketa-



Biztanleria adin eta sexuaren arabera. 2022

adinean dauden sektoreena, alegia. Horrela, bada, **Sopela emantzipazio prozesuan dauden bikoteentzako gune erakargarria zen, udalerrian finkatu eta erreproduzitu baitira.**

**Etxeei dagokionez**, xehetasun-maila handieneko datuak, udal-eskalan, NEIren biztanleria-eta etxebizitza-erroldeko datuak dira. Horien azken behin betiko bertsioa 2011koa da, eta 2023an horiek eguneratzea espero da. Azken behin betiko datuen arabera, Sopelako errealitateak ezaugarri hauek ditu:

- **Gehienak seme-alabak ardurapean dituzten bikoteak** dira (etxe guztien % 45 inguru), Uribe Kosta osoan bezala. Hurrengo taldean, seme-alabarik gabeko bikoteak nabarmentzen dira (% 20,86).
- **Lan egiteko adineko emakumeen eta gizonen arteko bakardadea antzekoa da** (% 7,38 eta % 7,39, hurrenez hurren). **Hori Sopelaren berezitasuna da, bere erreferentzia-ingurunearekin eta probintzia-dinamikekin alderatuta; izan ere, normalean, adin-tarte horietan bakarrik bizi diren gizonen ehunekoa handiagoa da.** Bestalde, adin-tarte handiagoetan desberdintasunak mantentzen dira, 65 urte edo gehiagokoan artean bakarrik bizi diren pertsonen etxeetan, emakumeen kasuan etxe guztien % 3,42 dira, hau da, gizonen kasuan baino % 3 gehiago. Hori bizitza luzeagoa izatearen ondorio da. Hala, Uribe Kostako udalerrri multzoak joera bera du.

Eustaten estatistika-zerbitzuek eskaintzen dituzten **biztanleria-proiekzioek** probintziako emaitzen eta udal-dinamiken behaketaren arteko egoera diferentziala adierazten dute. **Bizkaiko probintziaren kasuan, emaitzak beheranzko joera dute, eta Sopelako tokiko-dinamika espezifiko aztertuz gero, hazkundera hautematen da.**

Kalkulatutako egoera horiek Eusko Jaurlaritzak berak eskainitakoekin erlazionatu behar dira, bizitegi-parkearen hazkunde-mugen arabera. Bertan, 2026ra arte bizitegi-aldaketengatik 671 etxebizitza berri izango direla jasota dago, beraz, 8 urtean (2018-26 aldian) gutxi gorabehera biztanleriaren erdia haziko dela ondorioztatu da.

Azterketa horren logika jarraituta, aurreikusitako hazkundera bikoiztu egingo litzateke planaren aplikazio-epeldian; beraz, 700 biztanle berri inguru izango lirateke, kalkulatutako azken bi tasen artean. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen kalkuluak (ondoren ageri denak), aurreko hamarkadan egin zenak, ez ditu jasotzen azken bosturtekoko hazkunde-joerak, tasak handitzen dituztenak, aurreko epeldietan antzeman bezala.

**UDAL HIRI-PLANGINTZAN AURREIKUSI BEHARKO DEN ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOAREN KALKULUA**  
EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan ezarritako irizpideen arabera.

Udalerria:		Sopela										
Udalerraren biztanleria EUSTATEN arabera	Bertan dauden etxebizitzaren kopurua EUSTATEN arabera	2018-2026 eperako etxebizitzaren beharrak						Etxebizitzaren ahalmen maximoa				
		Etxebizitza nagusiak		Bigarren etxebizitzak		Etxebizitza hutsak		Etxebizitzaren beharrak Guztira	Biztanleriaren arabera Harrotze Koeffizientea	Etxebizitzaren beharrak bider harrotze koeffizientea	Etxe hutsen berreskurapenaren ondorioz	Etxebizitzaren Ahalmen maximoa
		Biztanleriaren aldaketaren ondorioz	Familia-tamainaren aldaketaren ondorioz	Etxe nagusien aldaketaren ondorioz	Etxe hutsen aldaketaren ondorioz							
1996	2016	2016	A1	A2	B1	C1	NR	Harrotze Koef.	NRe	C2	Etxebizitzak	
9.400	12.592	6.000	671	304	137	56	1.168	2,40	2.803	-122	2.681	

MUGATZAILE GEHIGARRIAK:  
 (\*) Beti aurreikusi datekeen egoitza-ahalmen minimoa (bertan dauden etxebizitzaren kopuruzaren %10a)  
 (\*\*\*) Oinarritako Egoitza-ahalmen maximoa (Bertan dauden etxebizitzaren kopuruzaren %50a)

**CALCULO DE LA CAPACIDAD RESIDENCIAL MAXIMA A PREVER EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL**  
según los criterios establecidos en las DOT.

Municipio:		Sopela										
Población del municipio según EUSTAT	Viviendas existentes según EUSTAT en el año	Necesidades residenciales para el periodo 2018-2026						Capacidad residencial máxima				
		Viviendas principales		Viviendas secundarias		Viviendas deshabitadas		Necesidades residenciales Totales	Factor de Esponjamiento en función de la población	Necesidades residenciales esponjadas	Reducción por recuperación viv. deshab.	Capacidad residencial Máxima
		Por variación de la población	Por variación del tamaño familiar	Por variación viv. principales	Por variación viv. deshab.							
1996	2016	2016	A1	A2	B1	C1	NR	Esponjamiento	NRe	C2	Nº Viviendas	
9.400	12.592	6.000	671	304	137	56	1.168	2,40	2.803	-122	2.681	

LIMITACIONES ADICIONALES:  
 (\*) Capacidad mínima que siempre se puede prever (10% de las viviendas existentes)  
 (\*\*\*) Capacidad residencial máxima admisible (50% de las viviendas existentes)

### 3.2. EREDU EKONOMIKOA, ENPLEGUA, ERRENTAK ETA ZAURGARRITASUNA

#### Eredu ekonomikoa

Sopelaren errealitateari erreparatuta, sektore hauek antzematen dira:

- Zerbitzuen sektoreak garrantzi handia du, zentralitate jakin bateko herriguneetan garatutako herri guztiek berezko dutena. Hala, zerbitzuen sektoreak Udalaren Barne Produktu Gordinaren % 65,3 hartzen du. Establezimenduei dagokienez, 2022an EJSNK emandako datuak establezimendu guztien ia % 82 dira.
- Bigarrenik, BEG handiena sortzen duten sektoreen artean erakuntza dago, totalaren % 19,1. Sektore hori, establezimenduei dagokienez, 2022an 77 establezimendutan kontzentratzen da, totalaren % 9, hain zuzen.

- Hirugarren sektorea, BEGari dagokionez, industria eta energia dira, % 15,3 direna, 107 enpresarekin, totalaren % 3,74. Horrek adierazten du enpresa handien ereduarekin ezartzen direla.
- Azkenik, lehen sektorea ia ez dago (BEGaren % 0,2). Nekazaritzako azalera erabilgarria 42 hektareakoa da, eta bertan erroldaturako ustiategiak 60 dira eta lehen sektoreko jarduketetan ez dago inbertsiorik.

### Lana eta langabezia

Ehunekoetan, guztira, % 2 egin du gora azken bosturtekoan. 2021ean soilik inbertitzen da okupatutako pertsonen sektorearen hazkundera. Okupazio handiagoa dago gizonen artean emakumeen artean baino.

Oro har, langabeziaren dinamikek egonkortasuna izan dute azken bosturtekoan, hala ere, joera langabezia murriztea izan da. Hala, tasa % 11tik % 9,2ra bitartekoa izan da. Lana eskuratzeari dagokionez, emakumeen langabeziaren ehuneko eta jarduera-eza gizonena baino handiagoa da. Hala ere, emakumeen eta gizonen artean jarduera-ezaren diferentzia murrizteko prozesua dago (ia % 6tik % 2,5era). Adinaren arabera baldintzatzailea ere antzematen da, 45 urtetik gorako pertsonak baitira langabe gehienak.



### Errentak eta Kontsumo-gaitasuna

2020an eskuragarri zeuden errenta pertsonalak 21.061 eurokoak izan ziren, eta batez besteko familia-errentak 53.221 eurokoak. Sopelak, probintziaren barruan, errenta-kontuetan dagoen lurralde-bipolaritateari erantzuten dio. Probintziak desberdintasun handiak ditu itsasadarraren ertzen eta kostarekiko hurbiltasunaren arabera.

Udalak errenten hazkunde-prozesu orokorra bizi izan du. Datu positibo hori indartu egiten da, errentarik txikiak izan baitira ehuneko hazkunderik handiena izan dutenak.

Sopelan errenta handien eta txikien pertsonen artean alde handiak daude (23.817 euro eta 82.262 euro, hurrenez hurren). Hala ere, errenta txikiak % 16,36 egin dute gora, eta handienek, aldiz, % 9,14.

Hala ere, zenbateko hori modu bereziagoan aztertu behar da, eremuen, adinaren eta sexuen ikuspegia aplikatuta.

- Emakumeen errentak gizonenak baino dezente txikiagoak dira. Datu hori, hain zuzen ere, lan-munduan gutxiago murgiltzen direlako da eta gutxiago ordaintzen diren lanpostuak dituztelako. Horri gehitu behar zaio lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handiagoa

dutela, horietako asko ugaltze- eta zainketa-lanetan erantzukizun handiagoa dutelako justifikatuak. Sopelan errenta eskuragarria 8.660 euro handiagoa da gizonen kasuan emakumeenean baino. Alde hori eskualdekoa, probintziakoa eta Euskadikoa baino handiagoa da. Hala ere, berdintasunari dagokionez, datu negatibo horri ohar positiboa gehitu behar zaio: Sopelan, sexuen arteko errenta-diferentzia gehiago gutxitu da, % 19ko murrizketarekin, eskualdearen % 15ekoarekin edo probintziaren eta Euskadi osoaren % 17koarekin alderatuta.

- Adinaren arabera, ugaltze-adinean emakumeek enplegua lortzeko duten desberdintasuna nabarmena da, batez ere 35 urtetik aurrera. Sexuen artean datuak askoz parekoagoak dira, adin horretara iritsi arte.
- Hala ere, sexuen artean alde nabarmenak daude, emakumeen artean ahultasun handiagoa izanda, diru-sarrera horren mende baitaude. Izan ere, berme-errenta jasotzen duten emakumeek gizonen baino 6 puntu gehiago hartzen dituzte.

### **Errentak eta etxebizitza egokia eskuratzea**

Etxebizitza eskuratzean erosteko erregimenari dagokionez, bi pertsona sostengatzaile edo gehiagoko etxeen egoeraren kasuan, etxebizitza eskuratzeko hileko diru-sarreraren % 35 inbertitu al badute, etxebizitza eskuratu ahal izateko aukera izango dute.

Batez besteko errenta txikienean pertsonen kasuan, zehazki emakumeen kasuan, egoera are negatiboagoa da, zenbatekoak batez besteko orokorraren azpitik baitaude. Hala, sostengatzaile bakarreko etxeetan, kopuru hori ez da nahikoa izaten etxebizitza egokia eskuratzeko.

Alokairuari dagokionez, oso eskaintza gutxi dago, baina eskaintza zabalduz gero, egungo batez besteko prezioak mantentzen badira, alokairua etxebizitza erostea baino konplexuagoa da sostengatzaile bakarreko etxeentzako, hilekoak are garestiagoak baitira.

Pertsona sostengatzaile bakarreko familiek, batez ere emakumeak badira eta batez besteko errenta eskuragarri baxuagoa badute, zaila dute etxebizitza erosteko aukera, baldin eta errenten % 40 edo gutxiago erabili behar badute, baliabiderik ez dutelako edota aztertutako prezio-tartean dauden etxebizitzaren eskaintza oso txikia delako. Gainera, analisiari aurrezkoa izateko beharra gehitu behar zaio.

# 4,

## LURRALDEAN ERAGINA DUTEN LURRALDEAZ GAINDIKO PLANGINTZAREN ONDORIOZKO BALDINTZAK.

### 4.1. SOPELA ETA INDARREAN DAGOEN BILBO METROPOLITARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA

Irailaren 26ko 179/2006 Dekretuaren (EHAA 2006/11/7) bidez onartu zen Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala. Plan horrek 35 udalerrri hartzen ditu, eta horien artean dago Sopela. Plan horren helburu nagusia da lurraldean eragina duten eta 16 urteko epean egin beharreko ekintzak koordinatzea, Eremu Funtzionalaren garapen jasangarria bermatzeko.

Planak lurralde-eredua ezartzen du, honako atal hauen arabera egituratutako hainbat elementuk osatua: ingurune fisikoaren antolamendua; lurzorua antolatzeko irizpideak eta politikak; etxebizitza-beharrizanak eta bizitegi-lurzorua eskaintzaren kuantifikazioa; jarduera ekonomikoak eta berronera estrategikoa; udalez gaindiko ekipamenduak; sare berdea; garraio-azpiegiturak; zerbitzu-azpiegiturak; eta udal-plangintzen bateragarritasuna. Azkenik, planaren izaera markatzen duten 27 ekimen estrategikoak eta 24 ekintza egituratzaile definitzen ditu.

**LPPk iragartzen ditu etxebizitza edo jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzoru berrien proposamenak, horien banaketa espaziala kontuan izanda, lurraldea gehiago orekatzea xede izanda.** Izan ere, egungo eredia desorekatua da eta lekualdaketa edo mugikortasun ugari eragiten ditu, ekonomia- eta ingurumen-gainkosteak sortuta. LPPk, ahal den neurrian, eredu hori orekatu nahi du, **ekonomia berreskuratzeko jarduketak proposatuta, batez ere Eskuineko Ertzean.** Esku hartzei dagokienez, LPPren bizitegi-proposamenak edo jarduera ekonomikoak **hainbat modutan gauzatuko dira: hiri-berronera, eraberritzea, ondare eraikiaren gainean jardutea, dentsitatea handitzea eta garapen berriak.** Horiez gain, bizitegiez edo jardueraz gain, **ingurune fisikoarekin eta sare berdearekin lotutako bi jarduketa adierazten dira: parke metropolitarraren proposamena eta paisaiaren aldetik interesa duten landa-eremuak.**

LPPk ez du aurreikusten Sopelan jarduera ekonomikoetarako edo udalez gaindiko ekipamenduetarako eremurik.

#### Ekintza Egituratzailak eta Ekimen Estrategikoak

Sopelan honako hauek aurreikusten dira:

1. **Bide egituratzaileak eskuinaldeko kostaldeko igarobidean** izeneko Ekintza Egituratzaila. Ekimen hau Itsasadarraren Eskuin aldean hasi eta Uribe Kostaraino zabaltzen da. Ekintzak helburu nagusizat du errepide sarea osatzea eremuan zehar, ahalik eta tarte berri gutxienez albat irizpide onenak lortzeko eta proposatzen diren ekimen berriak ere ahalbidetzeko.

2. **Oraingo Metro-sarea hobetzea** garraibide sarea metropoliko garraio kolektiboaren zutabe bilakatzeko eta bestelako garraibideekiko aldaguneak ezartzeko.
3. **Sare Berdeko Ibilbide Naturalak.** Sarea ibilbide «atseginez» eta alternatiboez osatua dago: inguruan eragin handirik izan gabe, ibilbide horiek Sare Berdeko atsedenguneak lotzen dituzte, baita haietan barna ibiltzeko aukera eman ere.
4. **Bizikleta-sareari** dagokionez, **Sopelana-Urduliz-Plentzia ibilbidean bidegorria sortzea** proposatzen da.
5. **Sopelan OE 12 Ekimen Estrategikoari lotutako bizitegi-garapen berriak planteatzen dira.** Ekimen Estrategiko hori Metroaren 1. lerroak zeharkatzen duen luzerako tartean gauzatuko da, Getxoko, Berangoko, Sopelako eta Urdulizko udalerrietan, hain zuzen ere. Oro har, bizitegi-gune berrietako dentsitateak eta hiriguneetakoak antzerakoak izatea proposatzen da; horrekin batera, metroa eta gainontzeko garraibide publikoak erabiltzera bultzatzea, garapen jasangarriaren mesedetan. Metroaren ondoko lurzoru urbanizagarrietan ere eredu berberari eutsi beharko litzaioke eraikitzeari ekin ez zaion kasuetan. Bide horretatik, toki horietan dentsitate-irizpideak oraindik antolatu gabe dauden lurzoru etako berbera izan beharko luke. **Sopelaren kasuan, zehazki, hau proposatzen da:**
  - **Proiektuari oraindik ekin ez zaion lurzoru urbanizagarri guztietan: 50-75 etxeb/ha-ko dentsitatea.**
  - **Lurzoru berri gehienek metroa urrunago dutenez, 30-50 etxeb/ha-ko dentsitatea planteatzen da.**
6. **Metropoliko Itsasertzeko Parkearen zati bat (EE.20 Ekimen Estrategikoa),** parkea Getxoko, Sopelako eta Barrikako udal mugarteetan zehar hedatzen dena. Ekimen Estrategiko honen bidez kostaldeko berdeguneak eta parkeak lotu nahi dira.

### Sare Berdea

LPPren Sare Berdea atsedenguneen (espazio libreen, metropoli parkeen eta ingurumen-garrantzia duten landa-eremuen), natura ibilbideen (oinezkoenak eta bizikletenak) eta interes bereziko puntuen (ingurumenaren, zientziaren, kulturaren, historiaren, etab.) sistema bateratua da. Horren xedea herritarrentzat “lurraldearen iragazkortasuna” bultzatzea da, naturaz gozatzeko mekanismoak bilatuta, espazio desberdinen bokazioarekin batera. Sopelan, metropoliko Sare Berdearen osagai dira honakoak:

- Espazio libretzat: proposatutako **Uribe Kostako parke lineala (Getxo, Sopela eta Barrika).**
- LPPen proposatzen den **Sare Berdeko Ibilbide Naturalen** zatia:

### Garraio eta bestelako zerbitzuen azpiegitura

**Sopelari eragiten dion proposamen nagusia orokorra da, eta Metroaren oraingo sarea hobetzeari buruzko EkE.16 Ekintza Egituratzailan jasota dago.**

**Bide-sareari dagokionez,** Sopelan eragina duen proposamenik garrantzitsuen aipatu da: **Uribe Kostako korridorearen jarraipena.** Hori, lurralde-sarean bide-zati gutxi berri batzuen bidez lortu nahi da, irisgarritasuna hobetzeko eta proposatutako jarduera berriak garatzeko aukera emateko.



**Bizikleta bidezko garraioaren arloan LPPk egin dituen proposamen orokorren artean, Sopela- Urduliz-Plentzia arteko ordezko bidegorria nabarmentzen da.**


### Udal-plangintzen bateragarritasuna

Sopelako plan orokorrerako **ondorengo hauekin bateragarria izatea proposatzen da:**

- Barrika. Barrika eta Sopelako mendebaldeko mugatik, ertzeko bide berria proposatzen da, bizitegi-garapen berrien euskarri. Bide berri horren helburua da garapen berrien komunikazio-bide izatea, eta BI-637 eta BI-2122 errepideen emana arintzea. Era berean, urbanizazioa kostaldearen pareko Metropoli Parketik bereiziko luke. Garapen eremu berria eratzen den sektoreetan azterketa komuna egin beharko da errepidearen ibilbideari buruz, baita ekipamendu- eta zuzkidura-estandarrei dagokienez ere, eremu osoko zerbitzuak egoki jartzeko.
- Berango eta Getxo. Eremu horretan jarduketa batzuk eta garapen berria proposatzen dira, Berangori eta Sopelari eragiten diena, nahiz eta azaleraren zatirik handiena Berangon egon. Garapen berriaren ebazpen formalerako, hiri-bilbearen eta proposamen berriaren arteko elementu egituratzaileak definitu beharko dira, bide eta espazio librean eskemak barne.








**SOPELA**

Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionala. Antolamendua. Lurralde-eredua.





**ESCENARIO ACTUAL  
ORAINGO ESZENATOKIA**

RESIDENCIAL URBANO HIRIKO EGOITZAKOIA	RESIDENCIAL URBANIZABLE EGOITZAKO URBANIZAGARRIA	INDUSTRIAL URBANO HIRIKO INDUSTRIAKOIA	INDUSTRIAL URBANIZABLE INDUSTRIAKO URBANIZAGARRIA	TERCIARIO URBANO HIRIKO HIRUGARREN SEKTOREKOA	TERCIARIO URBANIZABLE HIRUGARREN SEKTOREKO URBANIZAGARRIA	NUCLEOS RURALES LANDA GUNEAK	GRANDES INFRAESTRUCTURAS DE TRANSPORTE GARRAIO-AZPIEGITURA NAGUSIAK	SISTEMAS GENERALES SISTEMA OROKORRAK	ESPACIOS LIBRES EREMU ASKEAK	PARQUE NATURAL DEL GORBEIA GORBEIAKO PARKE NATURALA
--	---	---	--	--	--	---------------------------------	--	---	---------------------------------	--

**AREAS Y PROCESOS  
EREMUAK ETA PROZESUAUK**

**MODOS DE INTERVENCIÓN  
ESKUHARTZE-MODUAUK**

NUEVOS DESARROLLOS GARAPEN BERRIAK	Nuevos desarrollos condicionados a la modificación de las elecciones acústicas Aketziogune akustiko alaketari baldintzatutako garapen berrian	REDESIGNIFICACION DENSIFIKAZIO BERRIA	Densidad 15 a 30 Viv/Ha 15-30 etxeb./ha. ra arte	Densidad 30 a 50 Viv/Ha 30-50 etxeb./ha. ra arte	Densidad 50 a 75 Viv/Ha 50-75 etxeb./ha. ra arte	REGENERACION SUSPERTZEA	RENOVACION BERRIZTAPENA	PROMOCION PUBLICA HERRI SUSTAPENA
---------------------------------------	--	--	---	---	---	----------------------------	----------------------------	--------------------------------------

**CATEGORIZACION DEL MEDIO FISICO  
INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIAK**

ESPECIAL PROTECCION BABES BEREZIA	FORESTAL BASOGINTZA	AGROGANADERA Y CAMPIÑA NEKAZARTZA, ABELZAINZA ETA LANDA	PARQUES METROPOLITANOS PARKE METROPOLITARRAK	AREAS RURALES DE INTERES PAISAJISTICO PAISAJE ONURAKO LANDA-ALDEAK
--------------------------------------	------------------------	--	---	---

**USOS  
ERABILERAUK**

ACTIVIDADES ECONOMICAS JARDUERA EKONOMICOKOAK	INDUSTRIAL INDUSTRIAKOIA	PARQUE LOGISTICO PARKE LOGISTIKOIA	PARQUE EMPRESARIAL ENPRESA-PARKEA	TERCIARIO - EXPOSICION HIRUGARREN SEKTOREA - ERAKUSKETA	ACTIVIDADES ECONOMICAS MIXTAS JARDUERA EKONOMICOKO MISTOAK	Densidad 15 a 30 Viv/Ha 15-30 etxeb./ha. ra arte	Densidad 30 a 50 Viv/Ha 30-50 etxeb./ha. ra arte	Densidad 50 a 75 Viv/Ha 50-75 etxeb./ha. ra arte	AEROPORTUARIO AIREPORTUA	ZONA DE SERVICIO DEL AEROPUERTO AIREPORTUAREN ZERBITZUGUNEAK	PORTUARIOS PORTUA
AREAS MIXTAS (RESIDENCIAL - ACT. ECONOMICAS) MISTOAK (EGOITZAKOIA-JARDUERA EKONOMICOKOIA)	EQUIPAMIENTOS METROPOLITANOS EKIPAMENDU METROPOLITARRAK										

**INFRAESTRUCTURAS  
AZPIEGITURAK**

REDES VIARIAS BIDE-SAREAK	RECONVERSION A VIALIDAD URBANA HIRIKO BIDE-EGITURARAKO BIRMOLDAKETA	NUEVOS ENLACES LOTUNE BERRIAK	APARCAMIENTO DISUASORIO DE CAMIONES KAMIOIEN DISUASIO-APARKALEKUA	REDES FERROVIARIAS TREN BIDE-SAREAK	INTERCAMBIADORES MODALES GARRAIO BIDE ALDAGUNEAK	ITINERARIOS NATURALISTICOS IBIL BIDE NATURALISTIKOAK	PUNTOS DE INTERES INTERES-GUNEAK
------------------------------	--	----------------------------------	--	--	---	---	-------------------------------------

**COMPATIBILIZACION DE PLANEAMIENTOS  
PLANEAMENDUEN BATERAGARRITASUNA**

AMBITO DE ESTUDIO DE COMPATIBILIZACION BATERAGARRITASUNA IKERTZEKO EREMUA	AREA DE COMPATIBILIZACION BATERAGARRITASUN-EREMUA
--	--


ESCALA: 1:50.000    ANTOLAKETA 4 PLANA    ORDENACION PLANO 4    ESCALA: 1:50.000

bilbo  
metropolitarraren  
l.p.p.

p.t.p.  
bilbao  
metropolitano

azaroa 2006 noviembre  
BEHIN-BETIKO ONARPENA TESTU BATEGINA - TEXTO REFUNDIDO APROBACION DEFINITIVA





SOPELA

ESCENARIO ACTUAL ORAINGO ESEZMATOKIA	
RESIDENCIAL URBANO HERIKO EGOTZANGA	NUCLEOS RURALES
RESIDENCIAL URBANIZABLE EGOTZANGA URBANIZAGARRIA	GRANDES INFRAESTRUCTURAS DE TRANSPORTE GARRAIO AZPIGOTURA NAUTIKAK
INDUSTRIAL URBANO HERIKO INDUSTRIAGOA	SISTEMAS GENERALES SISTEMA OROKORRAK
INDUSTRIAL URBANIZABLE INDUSTRIAGOA URBANIZAGARRIA	ESPACIOS LIBRES EREZTU ASKEAK
TERCIARIO URBANO HERIKO HIRUGAIAREN SEKTORIOKOA	PARQUE NATURAL DEL GORBEA GORBEAKO PARKE NATURALA
TERCIARIO URBANIZABLE HIRUGAIAREN SEKTORIOKO URBANIZAGARRIA	

AREAS Y PROCESOS EREMUAK ETA PROZESUAK	
<b>MODOS DE INTERVENCIÓN ESKUHARTZE-MODUAK</b>	<b>CATEGORIZACION DEL MEDIO FISICO INGURUNE FISIKOAREN KATEGORIAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>NEUVOS DESARROLLOS GARAPEN BERRIAK</li> <li>Nuevos desarrollos condicionados a la modificación de las condiciones físicas. Aterketan gaituratu edo aldatu baldintza fisikoak.</li> <li>REDEFINICIÓN IDENTIFICAZIOA</li> <li> <ul style="list-style-type: none"> <li>Densidad 15 a 30 Vueltas</li> <li>Densidad 30 a 50 Vueltas</li> <li>Densidad 50 a 75 Vueltas</li> <li>Densidad 75 a 90 Vueltas</li> </ul> </li> <li>REGENERACION SUPERTZEA</li> <li>RENOVACION BERRIZTAPENA</li> <li>PROMOCION PUBLICA HERRI SUSTAIAPENA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>ESPECIAL PROTECCION BARRIO BARRIA</li> <li>FORESTAL BARDINTZA</li> <li>AGROGANADERIA Y CAMPESINA HIRUGAIAREN BARRIO ETXELAKA</li> <li>PARQUES METROPOLITANOS PARKE METROPOLITARAK</li> <li>AREAS RURALES DE INTERES Paisajetiko Pasa Oinarri Landa-aldizak</li> </ul>

USOS ERABILERAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>ACTIVIDADES ECONOMICAS JARDUERA EKONOMIKOAK</li> <li>INDUSTRIAL</li> <li>PARQUE LOGISTICO</li> <li>PARQUE LOGISTICO INDUSTRIAL</li> <li>INDUSTRIA AGROPECUARIA</li> <li>INDUSTRIA DE SERVICIOS HIRUGAIAREN SEKTORIOA - ERAKUTSOKETA</li> <li>JARDUERA EKONOMIKO ERREKIAK</li> <li>AREAS MITAS (RESIDENCIAL - ACT. ECONOMICAS) MITAK (EGOTZANGA-JARDUERA EKONOMIKOAK)</li> <li>EQUIPAMENTOS METROPOLITANOS EQUIPAMENDU METROPOLITARAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>RESIDENCIALES EGOTZANGAK</li> <li> <ul style="list-style-type: none"> <li>Densidad 15 a 30 Vueltas</li> <li>Densidad 30 a 50 Vueltas</li> <li>Densidad 50 a 75 Vueltas</li> <li>Densidad 75 a 90 Vueltas</li> </ul> </li> <li>AEROPORTUARIO AEROPORTUA</li> <li>ZONA DE SERVICIO DEL AEROPORTU AEROPORTUAREN ZERBITZUGUNA</li> <li>PORTUARIOS PORTUA</li> </ul>

INFRAESTRUCTURAS AZPIGERTURAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>REDES VIARIAS BIDE-BARRIAK</li> <li>RECONVERSION A VALIDAD URBANA HERIKO BIDE-GOTZARAKO BIRBOLDUKETA</li> <li>NUEVOS ENLACES LOTUNE BERRIAK</li> <li>APARCAMIENTO DISBURSIVO DE CAMIONES KAMIOEN DESBURSIBO APARKALDEAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>REDES FERROVIARIAS TREBIDE-BARRIAK</li> <li>INTERCAMBIADORES MODALES GARRAIOBIDE ALDAGUNEAK</li> <li>ITERMINADOS NATURALISTICOS BELTZE NATURALISTIKOAK</li> <li>PUNTOS DE INTERES INTERES-GUNEAK</li> </ul>

COMPATIBILIZACION DE PLANEAMIENTOS PLANEAMENDUEN BATERAGARRITASUNA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>AMBITO DE ESTUDIO DE COMPATIBILIZACION BATERAGARRITASUNA IKERTZEKO EREMTIA</li> <li>AREA DE COMPATIBILIZACION BATERAGARRITASUN EREMTIA</li> </ul>	

NOTA: LA DELIMITACION DE LAS ACTIVIDADES EXTRAIVAS LA ESTABLECEN LOS PLANEAMIENTOS MUNICIPALES OVIARIA, URBANIZACION Y HIRUGAIAREN NAGAZIA LERRI-PLANEAMENDUAK EZARRITAKO.

DESLINDES APROBADOS Y EN TRAMITACION ONARTUTAKO MUGAKETAK ETA TRAMITAZIOAN DAUDENAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>LINEA DE BARRIO DE MAR ITZASKO URZERTZAREN LERRIOA</li> <li>LINEA DE DESLINDE DEL DOMINIO PUBLICO MARITIMO-TERRESTRE Los puntos que pertenecen al dominio público marítimo-terrestre quedan afectados por la Ley 22/98 de Costas ITZASKO URZERTZAREN LERRIOA: urzertzearen baldintza lerrioa. Bate-linortako herri-jarduarre ostean duten lurak tokari buruzko 22/98 legeraren menpean egongo dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>LINEA DE SERVICIO DE PROTECCION BARRIO ZORNUKAREN LERRIOA</li> </ul>

**MODELO TERRITORIAL LURRALDE-EREDUA**  
 MARGEN DERECHA / URIBE KOSTA  
 ESKUALDEA / URIBE KOSTA

ANTOLAKETA 43. PLAZA    ORDENACION PLANO 4.2    ESCALA: 1:50.000

bilbo  
 metropolitarraren  
 l.p.p.


p.t.p.  
 bilbao  
 metropolitano

azarria 2009 inkestaren  
 BEHIN-BEHINO OARRPENA TESTU BATEGUNA - TEXTO REFUNDIDO APROBACION DEFINITIVA

Bilbao Metropolitarraren Eremu Funtzionala. Antolamendua. Lurralde-eredua.



## 4.2. 2019KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK



Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Laburpen-mapa eta Sopelaren kokapena

1997ko Gidalerroen berrikuspena lurralde-eredua lurralde-erronka berrietara egokitzeko printzipio zuzentzaileetan oinarritzen da; azken batean, 1997ko LAGen lurralde-ereduarekiko berrikusitako lurralde-ereduaren balio erantsia nabarmentzen dutenak dira. Berrikuspenean proposatutako lurralde-ereduak jasangarria, inklusiboa, adimentsua, orekatua, erlazionatua eta parte-hartzailea izatea begiratzen du. Funtsean, 1997ko Gidalerroek ezarritakoaren luzapena da, gaur egungo arloetako diziplinara eguneratutakoa.

**Sopelako HAPOrako, zuzenean edo zeharka, espazioaren antolamenduari eta erabilerari buruzko Gidalerroen Arauen artikuluen eraginkortasun loteslea honako hau da:**

Artikulua	Zuzeneko eraginkortasun loteslea	Zeharkako eraginkortasun loteslea
3	1, 2, 3, 4a (3 eta 4) eta 4b atalak	4a (1 eta 2) atalak
4	2, 3, 4, 5 eta 7 atalak	1 eta 6 atalak
5		Artikulu osoa
6		Artikulu osoa
7	3, 4, 5 eta 6 atalak	1, 2 eta 7 atalak
8	1, 3, 4 eta 5 atalak	2 atala
9		Artikulu osoa
10	2 atala	1 eta 3 atalak
11		Artikulu osoa
12	1, 2, 3 eta 4 atalak	5, 6 eta 7 atalak
13	1 eta 2 atalak	3 atala
14	2 atala	1, 3, 4 eta 5 atalak
15	1, 2, 3 eta 8 atalak	4, 5, 6, 7 atalak
16	2 eta 4 atalak	1, 3, 5, 6 eta 7 atalak
17	4 atala	1, 2, 3, 5 eta 6 atalak
18	Artikulu osoa	
19	Artikulu osoa	

### **3. artikulua. Ingurune fisikoa antolatzeke gidalerroak.**

- a) HAPOk2019koLAGetako lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak erabili behar ditu, bai eta horietako bakoitzerako proposatutako erabilerak ere, eta hori guztia 2019koLAGetan jasotako ingurune fisikoaren antolamendu-matrizearen arabera.
- b) Ingurune fisikoko erabileren erregulazioa ere kontuan hartu behar da, honako hauetan oinarrituta: Nekazaritza eta Basogintzaren LPS, Ibaien eta Erreken LPS eta Hezeguneen LPS.

### **4. artikulua. Azpiegitura Berdearen eta Ekosistemen Zerbitzuen arloko gidalerroak.**

1. Azpiegitura Berde bat ezartzea, honako elementu hauez osatua:
  - a) Beren ingurune-balioengatik babestutako espazioak.
  - b) Dokumentu honek aipatutako korridore ekologikoen sarea.
  - c) Ibilguak eta gainazaleko uren babeseko zona gisa kategorizatutako haien zonak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak inbentariatutako urmasa guztiak.
  - d) Funtzio anitzeko beste espazio batzuk.
2. Tokiko azpiegitura berdea sartzea, Eremu Funtzionalarekin eta EAEkoarekin konektatuta dagoena, eta tokiko azpiegitura berdearen zatitzat hartzea sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, tokiko sistemak, espazio libreak eta berdeguneak. Printzipio hauek aplikatuko zaizkie:
  - a) Berdeguneen espazioen jarraitutasuna.
  - b) Ekosistemen balio ekologikoa eta zerbitzuen indartzea babestea; horretarako, elementu ekologikoz hornitzea, halakoek bizi kalitatea hobetu ahal baitute eta natura pertsonengana hurbildu ahal baitute. Klima-aldaketari arreta berezia eskainiz, eraikitako hiriko espazio libreak iragazkor bihurtzea sustatuko da.
3. Ingurune-balioengatik babestutako gune bakoitza mugatzea gune horretan eragina duten korridore ekologikoetatik eta beste espazio multifuntzional batzuetatik, eta horretarako araubide egokia ezartzea.


### **5. artikulua. Eremu Funtzionalen arloko gidalerroak.**

Sopela Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalaren barne dago. Aurreko LAGetan bezala.


### **6. artikulua. Lurralde-eskalako hiri-sistemaren arloko gidalerroak.**

Ez du eragin zuzenik Sopelan.





Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Azpiegitura Berdea,



Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Eremu Funtzionalak.



du, eta horretarako birgaitzea, bizigarritasuna, irisgarritasuna, ingurumen iraunkortasuna eta energia-eraginkortasuna erabiliko ditu.

- c) Espazio libre berriak sortzea ahalbidetuko duten berroneratze-jardunak bultzatzea, eraikin-dentsitate handiegiaren ondorioz pilatuta dauden eremuetan, edo beharrezkoak diren hornidurak ez dituztenetan.
- d) Erabilera iragankorrak hirigunea berroneratzeko estrategia gisa sustatzea, herritarren eta administrazioaren arteko lankidetzaren bidez trantsizioan dauden espazioen berrerabilpenari eta talde-erabilpenari garrantzia emanda.
- e) Bide-sistema berrantolatze garaian, garraio publikora bideratutako bideei lehentasuna ematea, ibilgailu elektrikoaren bidezko garraioa eta salgaien banaketa garbia, bereziki, ahalbidetuta, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituretarako eta aparkalekuak eta bizikletak alokatzeko postuetarako espazioak gordeta.
- f) Finkatutako hiria iragazkortzeko jardunak sustatzea, horretarako, etxadietan eta bideetan berdeguneak sortuz. g) Hiri-ingurunearen ingurumen-kalitatearekin lotutako inpaktu negatiboak murriztea: kutsadura atmosferikoa, akustikoa, urena eta lurzorua.
- h) Energia-kontsumoa murrizteko eta eraginkortasuna areagotzeko ekintza espezifikoak ezartzea, baita kutsatzen ez duten energia-iturri eta -sistemen erabilera areagotzeko ere.
- i) Plangintzan irizpide bioklimatikoak sartzeko aukera aztertzea, honako hauek ahalbidetuko dituen erabilera- eta eraikuntza-erregimenaren erregulazio bat ezarriz: energia berriztagarriak ezartzea eta garatzea eta hiri-hondakinen kudeaketa hobetzea.
- j) Hiri-azpiegitura berdea sustatzea naturan oinarritutako soluzioen erabilerekin bitartez, hiri-eremuko naturaprozesuak hobetzeko, hala nola drainatzearen hobekuntza eta uren kalitatea, hiri-uholdeen arintzea, airearen kalitatearen hobekuntza eta isolamendu akustikoa. Ildo horretan, arboladiak areagotzea proposatzen da azpiegituren inguruan, isolamendu akustikoa hobetzeko eta konfort klimatikoaren faktore erregulatuak gisa eragiteko.
- k) Lurzoru kutsatuen kudeaketa eta lurzorua kalitatearen hobekuntza biltzea lurralde- eta hirigintza-plangintzako alde aurreko faseetan, plangintza hori oinarritzeko faktore gisa hartuta hiri-berroneratzea bultzatzeko.
- l) Telekomunikazioen azpiegitura komunaren erako gidalerroak garatzea auzoan, udalerrian, eskualdean eta Autonomia Erkidegoan. Gidalerro horiek administrazioek (Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak, Udalak) aplikatuko dituzte hiriberroneratzeko eragiketetan: kaleak, bideak, ur edangarriko sareak, saneamendua, gaueko argiak, semaforo-sarea, trenbidea, tranbia, metroa, garraio publikoa, hiri adimentsuko proiektuak, eta abar.

## **11. artikulua. Hiri-hazkunderen perimetroaren arloko gidalerroak.**

Hirigintza-plangintzarako gidalerroak dira, eta helburu hauek dituzte:

- a) Aurretik zegoen hiri-bilbean hiri-hazkundera eta hirigintza-ekimen berriak orientatzea, hiribilbea osatuz, lurzorua erabilera-intentsitate txikiko eremuak dentsifikatuz eta okupatu gabeko edo erabilera berriak har ditzaketen espazioak berrituz.



- b) Garraio sistemetara heltzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkundeko jardueri lehentasuna ematea, betiere metroaren, aldiriko trenen eta hiriarteko tranbien geltokietatik oinez joateko moduko guneak izanik eskaera-maila handia duten zuzkidura eta ekipamenduak kokatzeko lehentasunezko eremu.
- c) Balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezin gisa sartzeko bizitegitarako edo jarduera ekonomikoetarako hiri-dinamiken ondorioz zaharkituta geratu diren lurzoru urbanizagarriak.

**12. artikulua. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritzaekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak.**

Industriarako eremu tradizionaletarako, berritze, birgaitze, eraberritze eta balioztatze estrategiak sustatzea, honako gidalerro hauen arabera:

- a) Gutxiegi erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aprobetxamenduari lehentasuna ematea lurzoru berrien okupazioaren aurrean:
  - 1) Gutxiegi erabilitako ekonomia-jardueretarako lurzoruak kontuan hartzea, landa-eremuko lurralde berri gutxiago kolonizatu behar izateko.
  - 2) Erreminta administratibo eta fiskalak diseinatzea jabe industrialen eta udalen arteko lankidetzan izan dadin orain arte industria-arloko lurzoru izan direnen mantentze lanak eta kontserbazioa egiteko.
- b) Hiria erabileren arabera segmenta dadin sailhestea, baita bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kanpoaldeko poligonoetara kanpora daitezkeen ere.
- c) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatzea, lurzoru horietan zenbait solairutako eraikuntzen egikaritzapena ahalbidetuta, betiere inguruak dituen balio eta ezaugarri natural, ingurune-arloko, topografiko eta paisajistikoekin bat etorritik, baita garatu beharreko jardueren izaerarekin ere.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriekin lotutako beste elementu batzuei buruz, honako gidalerro hauek kontuan hartzea:

- a) Kokaleku berezi edo berezietan kokatzea, lurraldearen bikaintasuneko hainbat osagai uztartzen direla.
- b) Inguruko paisaia hiritar eta naturalean txertatzeko aukera bilatzea, eta balioa handitzeaz gain, hobetzeko lagungarri ere izango dira.
- c) Konektibitate handia izatea, errepide bidezko eta garraio kolektiboko konexio onak izanik, hirigune garrantzitsuenekin eta kanpoko konexio-azpiegiturekin azkar eta modu eraginkorrean lotuko dituztela.
- d) Mugikortasun iraunkorreko sistemak sartzeko eta azpiegitura digital egokia izatea, ingurune-bikaintasunera bideratutakoa, eta espazio publikoen kalitatea bereziki azpimarratuta.

Merkataritza-ekipamenduei buruz honako gidalerro hauek kontuan hartu behar dira:

- a) Hiriko merkataritzari lehentasuna ematea aldirietako merkataritzaren aldean.

- b) Merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea.

### **13. artikulua. Bizitegi-kuantifikazioaren arloko gidalerroak.**

Gehienezko bizitegi-kuantifikaziorako prozedura ezarri da. Hori aplikatuta atera dira lehen aipatutako 470 etxebizitzak.

### **14. artikulua. Plangintzak bateragarri egitearen arloko gidalerroak.**

Lurralde Plan Partzialari egokitzen zaion erantzukizuna da.

### **15. artikulua. Uraren arloko gidalerroak.**

Hirigintza-plangintzak honako hauek bete behar dituela zehazten da:

- a) Ur-bazterreko eta ibilguko baldintzak babestea ur-masetako eta eremu babestuetako ingurumen-helburuak lortzeko, eta ibaigune, estuario eta hezeguneen dinamika eta morfologia lehengoratu ez ezik sustatu ere egingo dira, hiri-berroneratzeko eta -berritzeko eragiketetan.
- b) Politika egiterakoan egiturazko neurriak ezartzea arriskupeko hirigune sendotuetan, eta neurri horiek egiturazkoak ez diren beste hainbat neurriekin uztartuko dira, urak har ditzakeen eremuetan lurren erabilerak arautuz eta mugatuz, eta honako bi premisa hauek kontuan hartuz: gertaeraren edo uholdearen arriskugarritasuna, eta jardunaren eraginpean jarri nahi den lurraren oinarritzko baldintza: landa-lurra edo urbanizatua.
- c) Hirigintza-aurreikuspenetan ur-eskariak behar bezala asetzeko baliabide nahikoak daudela eta, aldi berean, harguneetako emari ekologikoen erregimenekiko bateragarritasuna kontuan hartzea. Eta, era berean, aipatutako ur-masaren ingurumen-helburuak betetzeko nahikoa eta egokia den saneamendu- eta arazketa-azpiegitura bat aurreikustea.
- d) Plangintza orokorrean, lurzoru urbanizaezinaren ibai, erreka, aintzira eta urmaeletako ertzetan «Gainazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina» kategoria ezartzea, Gidalerro hauetako ingurune fisikoari buruzko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuta.
- e) Hirigintza-garapen berriak dituzten landa-ertzetan urak har ditzakeen eremuaren okupazioa saihestea, eta, ezinezkoa balitz, itzulerako 100 urteko uraldia mugatzen duen lerrotik abiatuta kokatuko dira.
- f) Hiri-lurretako ibaiertzei garrantzi handia ematea hiripaisaia itxuratzean eta ingurune naturala hirien barruan integratzean, eta eraikuntza-erretiro oparoak sartzea, ibaiaren tamainaren arabera.
- g) Lurzoru urbanizagarriko eremuetako ertzetan, ibilguarekin mugakide den lurzoru librearen eskuragarritasun handiagoak espazio-antolamendu zabalagoa ahalbidetzen duela kontuan hartzea; beraz, egokia da eraikuntzaren eta urbanizazioaren atzerapenak planteatzea, berdeguneak sartzea eta ibaiertzean dagoen landaredia babestea ahalbidetzeko.
- h) Hiri berroneratzeko eta birmoldatzeko eragiketetan, gaur egun estaldura eta bideratze gogorrak dituzten ibaietako espazioak berreskuratzea.
- i) Uholdeak prebenitzeko arazo hidraulikoa eta zubien edo kultura-intereseko elementuen kontserbazioa bateragarri egitea hirigintza-plangintzan.

- j) 1 Km<sup>2</sup>-ko edo gehiagoko adar-arroa duten ur-ibilguak aldatzeko debekua errespetatzea.
- k) Etxadi-patioen, plazen eta espaloien iragazkortasuna sustatzea, hiriaren drainatzeahalmena hobetzeko.

#### **16. artikulua. Energiaren arloko gidalerroak.**

Hirigintza-plangintzaren proposamenek honako hauek lortu behar dituztela zehazten da:

- a) Eraikinak, auzoak eta hiriak energia-autosufizientziako sistemarik onenez hornitzea.
- b) Lehendik dauden eraikinen eta espazio urbanizatuaren energia-eraginkortasuna hobetzea.
- c) Irizpide bioklimatikoak erabiltzea eraikin eta espazio publikoak planifikatzeko, proiektatzeko eta gauzatzeko faseetan, bereziki orientazioari, diseinuari eta materialei dagokienez, bai eta energia-kontsumoa minimizatuko duten sistema pasibo eta aktiboen erabileran ere.
- d) Eraikin eta espazio publikoetan landaredia erabiltzea isolamendu-elementu gisa eta urteko estazioetan konfort klimatikoaren faktore erregulatu gisa.
- e) Energiari dagokionez eraginkorrak diren argiteria publikoko gailuak erabiltzea.
- f) Hiri-berrikuntzako eta -birgaikuntzako eremuetan eta garapen berriko eremuetan, energia termikoko eraikinetarako sistema zentralizatuak ezartzea, hiriko bero-sareen bidez sortzeko eta banatzeko, energia-iturri berriztagarrien bidez.
- g) Eraikinen eta instalazioen energia-autohornikuntza bultzatzea, eguzki-aprobetxamenduko, aprobetxamendu eolikoko, biomasako eta abarrekoko sistemen bidez, iturri berriztagarrietatik energia lortzeko soluzioei lehentasuna emanaz. Era berean, lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikin isolatuaren energia-autokontsumoko sistemen erabilera bultzatzea.

#### **17. artikulua. Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: hondakinen kudeaketa.**

Eraikuntzako eta urbanizazioko udal-ordenantzen bidez, material iraunkorren eta birziklagarrien erabilera sustatzearen beharra ezartzen da, bai eta jatorri biologikokoak ere, haien diseinuan, ekoizpenean eta ondoren birziklatzean ingurunean sortutako inpaktuak minimizatuz.

#### **18. artikulua. Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: lurzorua baliabide gisa.**

Zehazten da beharrezkoa dela:

- a) Lurralde- eta hiri-plangintzako ereduaren garapena bultzatzea. Eredu horietan, hiriespazioak eta lehendik dauden azpiegiturak berritzeko, birziklatzeko, berreskuratzeko eta berreraikitzeko jarduerak lehenetsiko dira, hala nola zabortege zigilatu zaharrak, ingurumen-azpiegitura edo -ekipamendu gisa kalifikatu beharko direnak.
- b) Lurzoruaren erabileraren plangintza egitea, eta, horretarako, kontuan hartzea, batetik, "lurzoruaren kalitatearen" faktorea, bai eta giza osasunerako eta ekosistemen funtzionamendurako onartezinak diren arriskuen prebentzioa, eta, bestetik, kutsatzaileak beste ingurumen-konpartimentu batzuetara ez sakabanatzea eta baliabideen erabilera optimizatzea.



- c) Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak bertan behera uzten diren unean aurreikusitako erabileraren arabera saneamendu-premiak ezagutzea ahalbidetuko duten ikerketak egitea sustatzea, hirigintza-garapeneko edozein jarduketaren aurretik, gainera, giza osasunari edo ekosistemei kalterik ez eragiteko.
- d) Lurzoru kutsatuen ikerketak eta berreskurapenak hiri-berroneratzeko prozesuetan sartzea.

#### **19. artikulua. Zeharkako gaien arloko gidalerroak eta hiri-eredua.**

Lurraldean eragina duten zeharkako gaiak kontuan hartu behar direla esan nahi du: irisgarritasun unibertuala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurraldeerlazioa. Eta zeharkako gai horiek kontuan hartuta, hiri-eredu trinko bat sustatu behar dela, erabilera-nahasketari dagokionez konplexua eta sozialki kohesionatua.

### **4.3. BILBAO METROPOLIARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENA**


**2021ean, Bilbo Handiko LPPren berrikuspen-dokumentuaren Hasierako Onespena onartu zen.**

**Zehazki, Sopelari dagokionez, hauek dira Hasierako Onespen-dokumentuaren proposamen garrantzitsuenak:**

1. Ekosistemen hobekuntzarekin zerikusia duten ingurumenaren hobekuntza-eremuak udalerrian jartzea, eta paisaia-intereseko eremuak identifikatzea, hala nola AEIP07. Sopela-Barrikako landazabalak.
2. Azpiegitura berdearen barruan Uribe Kostako parke lineala identifikatzea (plangintza Getxorekin eta Barrikarekin bateragarri egitea). Horrek, Getxoko Aixerrota eremuaren eta Plentziako itsasadarraren bokaleko ezkeraldearen arteko kostaldearen zerrenda osatzen du, kosta-lerrotik hiri-hazkondearen perimetrora arte. Horrez gain, Punta Galea-Barrikako Natura-intereseko eremua ere hartzen du.
3. Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriek eragindako afekzioak: uholdegarriak dien eremuak, akuiferoen zaurgarritasuna eta eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak.
4. Sopela LPPk proposatutako nekazaritza eta abeltzaintzako ekologia-korridoreen sarearen parte da, Interes Metropolitarrako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Guneekin eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Konektoreekin.
5. Bizitegirako kokaguneen eta jarduera ekonomikoen ereduari dagokionez:
  - Bizitegi-kuantifikazioa. 8 urterako Ereduaren etxebizitza-beharrizana: 2.031 etxebizitza. Babestutako etxebizitzaren erreserba Udalaren hirigintza-plangintzak kalkulatu behar du, baina, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak bete behar dira.
  - 10/2019 Legearen, ekainaren 27koaren, establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoaren arabera, Sopela eskualde-zentralitateko udalerrien B kategorian dago. Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren 19. artikuluaen arabera, lehenetsuneko kokapenerako jarraibideetan

Sopela hazkunde moteleko udalerrien artean dago. Alde batetik, lurzoru kalifikatu hutsak optimizatzea proposatzen da, ekoizpen-erabilerak lehenetsita merkataritza-erabilera bateragarrien gaitetik, eta, bestetik, bizitegi-eremuetan erabilera misto bateragarriak sustatu behar dira.

6. Garraioaren mugikortasunari eta azpiegituri dagokienez, administrazio eskudunek eraginak aurreikusten dituzte oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako sare metropolitarrako ekintzengatik: arteria-sarea garatzeko egikaritzeke dauden tartear egitea Sopelatik igarotzean; eta Sopela/Urduliz, Moreaga eta Elortza hiriguneen artean.
7. Bide-sareari buruzko lurralde-eredua dela-eta, BI-634 (Urko-Casarreina adarra) bidean afekzioak proposatzen dira, baita Urko-Casarreina adarra egin ondoren Sopelako hirigunean BI-634 errepidearen zatia tokiko-bide bihurtzea ere, behin Urko-Casarreina adarra eginda bertako trafikoa arinduko delako.
8. Sopela itsas mailako igoeraren lehentasunezko inpaktuarekiko kalteberatzat jotzen da, bai hiri-ingurunean, bai itsasertzean.
9. Akustikari dagokionez, plangintzan jaso beharreko baldintza hauek bete behar dira:
  - Zortasun akustikoko eremuak eta bibrazioek eragindako kalteak, 213/2012 Dekretuaren arabera izango dira honako azpiegitura hauetan: Bilboko Metroa eta BI-637, BI-3124, BI-2704, BI-2122 bideak.
  - G eremuak mugatzeko proposamena (kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duena), honako hauetarako: itsasertzaren babes bereziko eremuak, Punta Galea-Barrika, eta mehatxatutako fauna eta flora babesteko eremuak.
10. Lerro elektrikoetatik hegaztiak babesteko eremuak: Kosta-Plentzia-Bolue-Lemoniz-Jata



LPPren berrikuspena. Lurralde-ereduaren laburpena. Sopela.

#### 4.4. BILBO METROPOLITARRAREN EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN KATALOGOA ETA ZEHAZTAPENAK

Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalak, Sopela barne, Paisaiaren Katalogoa du, arlo horretako zehaztapenak ezartzen dituena. Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalak askotariko paisaiak ditu, nola kulturalak hala naturalak, zeinek taxutzen baitute herritarrek lurraldeaz duten irudia eta nortasuna ematen baitiete, bai Eremu Funtzionalari berari, bai haren zona guztiei ere.

Azterlana Sopelan zentratuta, egindako katalogotik abiatuta, hiru paisaia-unitate eta intereseko bi paisaia-mugarri bereizi dira:

- 21. Unitatea. Unbe-Gaztelumendiko mendikatea
- 22. Unitatea. Uribe Kosta landazabalak.
- 23. Unitatea. Uribe Kostako itsaslabarrak.

##### **21. Unitatea. Unbe-Gaztelumendiko mendikatea**

Unbe-Gaztelumendi gailur-lerroak altzoan hartzen du Asuako harana –eta, beraz, Txorierri– iparraldetik. Hego-ekialdetik ipar-ekialdera hedatzen den gailur-lerro horrek zenbait gailur interesgarri ditu, eta nabarmenak dira Bilboko metropoli-eremuko testuinguruan. Bizkargi mendia ekialdeko muturrean dago, itsas mailatik 565 metrora; gudarik gogorrenetariko baten lekuko izan zen Burdin Hesiaren erorialdian, Gerra Zibil bete-betean.



*Santa Marina haitza*

Barrualdean landazabal atlantikoaren zantzuak geratzen dira, hala nola, zenbait baserri, larre, belardi, labore eta heskai, baita sastrakadiak, iratzediak eta zuhaitzi autoktonoak ere. Dentsitate txikiko gune urbanizatuak ere agertu dira bertan; adibidez Unbe-Mendi urbanizazioa. Gainera, zenbait plan partzial gauzatu gabe geratu ziren, baina horien bide-sare eta instalazioen arrastoak agerian daude, Derioko Mantuliz urbanizazioarenak, kasu.





Unitatearen paisaia-balio nagusien artean, aipatu beharrekoak dira, batetik, mendilerro laua izatea eta Txorierriren iparraldeko horizontea eta atzeko plano osatzea, baita bertan landatutako basoak eta baso autoktonoak gailentzea ere; bestetik, paisaiaren behatoki garrantzitsua izatea: Munarrikolanda menditik, kasu, ikuspegi bikainak daude, bertatik ikusten baitira Jata mendia, Billanoko itsasargia, Gorlizko kostaldeko mendiak, Urduliz, Sopelana, Berango eta Getxo udalerriak eta itsasadarraren ezker aldeko hainbat gailur. Gailur-lerro horretan daude, halaber, 7 monumentu megalitiko eta aire zabaleko kokalekuak. Nabarmenak dira, gainera, Burdin Hesiko hainbat gotorlekuren hondarrak eta zenbait elementu geologiko, hala nola, Santa Marinako Haitz bereziak.

Paisaiaren ikusizko kalitatearen mailak handiak edo oso handiak dira unitatearen zati handi batean: batetik, ikusizko kalitate intrintseko handia dutelako; bestetik, gailur-lerroak ikuspen-maila handia izateaz gain, Txorierriren atzeko plano osatzen duelako iparraldean. Basoko landaredi autoktonodun zenbait gunek kalitatea hobetzen dute; beste zenbait gunek, ordea, gutxitu egiten dute, hala nola, eraldaketa ugari jasandako gunek, ongi ikusten ez direnek eta nagusiki landatutako basoak dituztenek, beste landare batzuen kalterako.

Oro har, paisaiaren hauskortasun-maila handia edo oso handia da. Horren eragile dira malda zein ikuspen-maila handiak izatea, eta basoko landaredia (autoktonoa zein landatutakoa) nagusitzea. Honako hauek dira paisaia-aldaketak hobeto jasan ditzaketen gunek bakarrak, eta, horregatik, hauskortasun-maila txikiagoak direnak: ipar-mendebaldeko hiri-korridorea, eta jada eraldatutako gunek txikiak.

## **22. Unitatea. Uribe Kostako landazabalak**

Unitate hau lur-eremu lauek osatzen dute oro har, eta Getxoren, itsaslabar-lerroaren, Butroe ibaiaren arroa mugatzen duten mendien eta Unbe-Gaztelumendi gailur-lerroaren artean daude. Barrika, Urduliz, Sopela eta Berango udalerrien lurak hartzen ditu, baita Getxoren lur-eremua ere, Galea Lurmuturreko golf-zelaiari dagokiona. Gobela ibaiaren ertzean Berangoko eta Sopelako herrigunak daude; iparraldeko itsaslabarretik hurbil, Barrikako herrigunea eta zenbait auzo; Munarrikolandaren eta Santa Marinaren (hegoaldean) eta Plentziako mendien (iparraldean) arteko korridore txikian, berriz, Urduliz dago.



*Sopelaren eta landazabalaren ikuspegi partziala*

Unitate honen paisaia-balio nagusiak honako hauek dira: zenbait eremutan oraindik ere irauten duen landazabal atlantikoaren eta laboreen egitura, eta bertako baserriak, heskaiak, nekazaritza-baratzeak, larreak, bazkalekuak, fruta-arbolak eta berotegiak. Ale horretatik, unitateko txoko batzuk benetan erakargarriak dira. Badira katalogatutako baserri batzuk ere, hala nola, Larrondo Bekoa baserria Sopelan, eta Urduliz Osteko baserria. Bolueko hezeguneak, halaber, ibaiertzeko baso trinko eta erakargarria du. Hiriguneetan eta haien aldirietan zenbait eraikin historiko zibil eta erlijioso interesgarri ere badaude. Berangon, kasu, Berangoko dorretxea eta Basagoiti dorretxea daude, baita Poza errota eta Errotaxu errota, eta Santo Domingo de Guzman eliza ere. Sopelan, Sopelako Bareño dorretxea eta Artaza-Torre baserria nabarmentzen dira, baita San Pedro eliza ere. Urdulizen, Barriako dorretxea eta Andra Maria eliza daude; Barrikan, Barrikako Andra Maria eliza

Paisaia-unitate honen ikusizko kalitatea handiagoa da itsasora hurbildu ahala, ikuspen handiagoa dagoelako, landaretza naturaleko landazabal atlantikoko mosaikoak dituelako, eta babes-balioa dakarkioten geografia-intereseko hainbat gune daudelako. Zenbait gune urbanizatuk ikusizko kalitate txikia dute, eta gainerako lurraldearena, oro har, ertaina da, ikuspen-maila txikia edukitzeagatik.

Bestalde, itsaslabarretatik hurbil dauden altuera handiko guneek hauskortasun-maila handia dute, desnibel handiaren ondorioz batetik, eta landazabala eta landaretza naturala tartekatzen dituen mosaikoaren ondorioz, bestetik. Horrez gain, hauskortasun-maila handiko kostako gune irekiak ere badaude, geografia-intereseko guneen segida handiaren parte direnak. Hegoaldeko eta ekialdeko eremu urbanizatuak edo ikuspen-maila txikikoek, berriz, paisaia-hauskortasun txikia edo oso txikia dute.

### **23. Unitatea. Uribe Kostako itsaslabarrak**

Unitate honek Getxoren (mendebaldean) eta Butroe ibaiaren bokalearen (ekialdean) arteko kostalde altuko eremua hartzen du. Era askotako erliebea dago bertan, hala nola, legartzak edo hondar argiko hondartzak (Arrigunaga, Gorrondatxe, Barrinatxe, Arrietara, Atxabiribil, Meñakotz, Barrika, Muriola), gehienbat tonu gris argiko itsaslabarren artean. Itsaslabar horietako batzuk Geologia Interesdun Lekuak dira, hala nola, Meñakotzeko pillow-labak, Sopelako K-T muga, Gorrondatxeko Eozenoa, Barrika-Galea paleozabalgunea edo Barrika eta Txitxarro Puntako tolesak. Izan ere, hainbat forma geologiko eta tektoniko sedimentario daude, eta bertan, hondartza fosilak, geruza bertikalizatuak eta hainbat egitura interesgarri daude.

Zenbait faktorek paisaia-hauskortasun handia edo oso handia dakarkio Uribe Kostari; adibidez, ikusizko kalitate intrintsekoak, erliebe malkartsuak, ikuspen-maila handiak, geologia-intereseko hainbat lekuk, zuhaixka erako landarediak edo landaredi belarkarak, eta tokiaren edertasunak. Bizkaiko kostako balio handiko tartea da, eta jendeak erruz bisitatzen du asteburuetan, eguraldi ona egiten duenean eta udan. Nabarmena da Getxoko itsaslabarren kalitate eta ikuspen-maila handia ere, Abraren pare-parean.





*Itsaslabarren ikuspegi partziala*

Unitatearen paisaia-balio nagusiak itsaslabarrek eta hondartzek moldatutako kostaldeak dira, beren balio estetiko handiko harkaitz-azaleratzeekin eta kolore beroko hondartza erakargarriekin. Aipatu behar da, halaber, itsaslabar horietako batzuk Geologia Interesdun Leku ere badirela. Nabarmena da Gorrondatxe eta Tunelbokako hondartzaren balio immaterial eta zientifikoa; bertan, industria-jatorriko ekarpenak dituzten sedimentu-metaketak daude (lurpeko meategia esaten zaiona). Badira ondare-balio handiko elementuak ere; hala nola, Galea lurmuturreko itsasargia eta gotorlekua, eta Getxoko Usategiko bateria, Arrigunagako talaia eta Aixerrota errota.

Paisaiaren hauskortasuna handia edo oso handia da; izan ere, hainbat paisaia-balio ditu, baita erliebe bertikal edo oso malkartsua ere agerian. Gainera, eremu labardunetan nekez egin daiteke paisaia aldatuko duen egiturarik edo ekintzarik.

**Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionalerako onartutako paisaia-unitateez gain, paisaiaren ikuspegitik berezitasun eta konplexutasun jakin bat duten lurraldeak barne hartu nahi dituen eta azterketa eta helburu bereziko kudeaketa eskatzen duten “Interes Bereziko Paisaia Eremuak”** izeneko kategoria gehigarria ezarri da. Esate baterako, erabileren eraldaketa bizia eta azkarra duten eremuak, bertan behera utzitako paisaia kulturalak, hiri-inguruko eremuak, besteak beste. 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua arabera, Interes Bereziko Paisaia Eremuak (IBPE) irizpide hauetako batzuen arabera identifikatuko dira:

- 1) Paisaia arraro edo mehatxatu gisa duten berezitasunarengatik, hauskortasunarengatik edo adierazgarritasunarengatik.
- 2) Narriadurarengatik edo degradazioarengatik, hiri-periferiako lurraldeak, hiri- eta landa-trantsiziokoak, ibaiertzekoak edo industrialak, batez ere
- 3) Biztanleentzat oso ondo ikusten diren eremuak direlako
- 4) Eremu funtzionalaren nortasuna osatzen modu erabakigarrian laguntzeagatik
- 5) Hautemate eta estetika aldetik ezaugarri bikainak izateagatik, osagai naturalen eta giza osagaien arteko elkarreragin bereziaren ondorioz

Sopelari dagokionez, **AEIP-07 Sopela-Barrikako landazabalak** aipatu dira, 1), 4) eta 5) irizpideekin bat datorrelako.



AEIP-07 Sopela-Barrikako landazabalak

#### 4.5. SOPELA ETA NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko, eta honako helburu nagusi hauek ditu: lurra eta, oro har, nekazaritza sektorea eta haren bitartekoak defendatzea eta babestea, egungo landa egoera zehaztea eta plangintza landa-irizpideen arabera planteatuko duen lurralde antolamendua bultzatzea. Sektorialki, LAPk nekazaritza eta basogintza erabileren lurzoru urbanizaezina arautzen du, haren antolamendu eremuak EAE osoa hartuz eta aurretik zeuden hiri eremuak alde batera utzita. Halakotzat hartzen dira udal plangintza orokorrak hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri edo urbanizatzeko gai gisa sailkatuta dituen (behin betiko onarpena jasotzen duten egunean) eremuak.

Sopelan, lurzoru urbanizaezinean, honako antolamendu kategoriak daude nagusiki:

**Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala, Balio estrategiko handiko azpikategoria:** gaitasun agrologiko handiagoko lurzorua eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo

jasangarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurrak hemen sartzen dira. Beraz, hura mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean.

- **Trantsizioko Landa Paisaia:** aurreko azpikategoriakoek baino gaitasun produktibo txikiagoa duten eremu landuak daude (malda handiagoak), edo landazabal-eremuak, belardiz eta haiekin mosaiko eran antolatuta dauden baso-unada txikiz estalita. Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude. Bokazioz, haien erabilera bi horietako bat izaten da.
- **Mendia, Basozaintza kategoria:** euren egungo erabileraetik eta, batzuetan, erabilera-bokazioaren arrazoiengatik (arriskuak, arrozen babesa, eta abar) zuhaitz-estaldura izateko bokazio argia daukaten lurrak sartzen dira hemen. Baso autoktonoak (natura-interes handia izateagatik) eta espezie aloktonoen landaketak (hemen, radiata pinua aipatu behar dugu, daukan hedaduragatik) sartzen dira hemen.
- Sopelan akuiferoen kutsadurarekiko urratze-arriskuko maila desberdineko eremuak daude, EAEko "Akuiferoen kutsadurarekiko urratze-arriskuaren maparen" barruan. Beraz, eremu horiek antolatzeke irizpideak lurra kutsatu ahal duten jarduerak ez kokatzea eta zona hauetan beharrezkoak diren nekazaritza- eta basozaintza-jarduerak zaintzea izan behar du. Ezinbesteko baten ondorioz aipatutako jarduerak zona hauetan jarri behar baldin badira, lurpeko uretarako kaltegabeak direlako bermea eskatuko da. Eremu horietan abenduaren 22ko 390/98 Dekretuan onartutako Nekazaritza-jardunbide Onaren Kodea aplikatzea gomendatzen da.

#### **4.6. IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA (ISURIALDE KANTAUARIARRA).**

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko, eta 1997koLAGen 8. kapituluaren horri buruz egindako zehaztapenak garatzeko idatzi zen. Azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez, Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa bat onartu zen, besteak beste, LPSren dokumentuan lurzorua erabiltzeko irizpide berriak sartzeko, uholde-arriskuaren mailaren eta azterlan berrien ondoren egindako uholde-arriskuaren mapa berrien arabera.

##### **Sopelako udala Gobela ibaiaren arrokoa da, udalerrria zeharkatzen duena.**


LPS honen funtsezko proposamenetako bat ur ibilgu guztiak arazo homogeneoko tartean arabera banatzea eta hiru osagaien azterketan oinarrituta zonakatzea da: Ingurumena, Hidraulika eta Hirigintza. Osagai bakoitzaren eta ezarritako izapidetze eta zonakatzeen arabera aplikatzen da araudia.

Ingurumen-Osagaiaren arabera, Planak lau eremu bereizten ditu berariaz: lehentasunezko Interes Naturalistikoko Zonetako Ertzak, Ongi Kontserbatutako Erriberako Landaredia duten Ertzak, Higadura-Arriskua, Akuiferoen Deslizamendua eta/edo Kalteberatasuna duten Eremuetako Marjinak eta Leheneratzeko beharra duten Marjinak.

**Ingurumen osagaiari dagokionez, Gobela ibaiaren eskuinaldeak eta ezker aldeak, hasieratik bokalera, zaugarritasun-maila handia edo oso handia dute.**

**Osagai hidraulikoari dagokionez, ez da mailarik bereizten tarte baten ere.** Hau da, ekarpen-azaleraren arabera, batez ere eremu zingiratsuen eta oso malda txikikoen proportzio handiari buruz esandakoaren ondorioz.






**PTS AGROFORESTAL- t.m. Sopela**

 Vulnerabilidad Acuíferos

**Categorías**

 Agroganadera: Paisaje Rural de Transición

 Agroganadero: Alto valor estratégico

 Forestal

Azkenik, **hirigintza-osagaiaren** arabera, planak lau eremu bereizten ditu: Landa-esparruko ertzak, Hiri arteko komunikazio-azpiegiturek okupatutako ertzak, Esparru garatuetako ertzak eta Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertzak.

**Gobela ibaiak, Sopelatik igarotzean, Landa-esparruko ertzak ditu, batik bat, eta Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten esparruetako ertz gutxi batzuk ere.** Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten esparruetako ertzetan eraikuntza atzeratzeko planteatuko den araudiak gaur egun dagoen ur-bazterreko landaredia mantentzea erraztuko du, eta uholdeen aurrean babesteko beharrezko ubideratze-lanen bideragarritasuna bermatuko du.

**Sopelan ez da identifikatzen Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremurik (UAGE), baina Getxon Gobela ibaiari eragiten dioten uholde-arrisku jakin batzuk dituzten eremuak daude, udalaren hego-mendebaldeko muturraren mugakide direnak.**

#### **4.7. INDARREAN DAGOEN ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA**

Itsasertzaren LPSk behin betiko onartutako Hezeguneen LPSak eta Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSak osatu zituen, hala, euskal itsasertzaren babes-maila orokorra indartu eta finkatu zuen. Dokumentua behin betiko onartu zen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluan, 2007ko martxoaren 13an.

**Sopelari dagokionez, bere itsasertza aisialdigunetzat diagnostikatu da (bainurako, uretako kiroletarako eta urpeko jardueretarako): Arietarra, Atxabiribil eta Soladontes hondartzak nabarmendu dira. Aipatzekoa da, halaber, surfaren praktika, batez ere, Salvaje hondartzan bere olatuen baldintza bereziak direla-eta.**


Itsasertzeko LPSk itsasertzaren kontserbazio-balioaren azterketa ere egiten du. Balio hori alderdi guztien batez besteko aritmetikotzat definitzen da. 4tik gorako zifrek aparteko balioa adierazten dute, 3 eta 4 bitartekoek balio bikaina, 2 eta 3 artekoek balio onargarria, eta 1 eta 2 artekoek balio murriztua. Unitate guztiek balioen bat badutela kontuan hartu da eta, horrenbestez, kontserbatzeko edo ingurumenaren aldetik leheneratzeko neurriak hartu behar dituztela. Hala, lau egoera bereizten dira.

- a) Aparteko balioa duen zona
- b) Balio bikaineko zonak
- c) Balio onargarriko zonak
- d) Balio urriko zonak

**Balio onargarriko zonen artean honakoak jasota daude:**

- **Sopela eta Getxo arteko itsaslabarrak:** nahiko handiak dira, eta hondargune txikiak dituzten itsasbazterretik gertu, eta beste handiago batzuk kanpoaldean, Galea lurmuturraren aurrean (lurmutur hori Bizkaiko Labe Garaietatik datozen zepa-isuriekin kutsatuta dago). Azaleratutako zatian, Sopelako Atxabiribil hondartzarako jaitsieraren ondoan, Kretazikoaren eta Tertiarioaren arteko trantsizioa ere antzeman daiteke, Zumaiako Aizkorri lurmuturrean bezala.
- **Sopelaren kostaldeko hareatzak:** aurrekoen ezaugarri berekoak dira. Hala ere, itsasbeheran nahiko hondartza zabalak sortzen dira (Arietarra, Atxabiribil, Soladontes eta Azkorri).

## Sector de Bizkaia



EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze LPS. Informazio-memoria. Kontserbaziorako balioa.

**Diagnostikoaren arabera, halaber, Sopelako itsasertzen Babes-zortasuneko Eremuan intentsitate handiko turismo-, aisialdi- eta atsedeen-azpiegituren zuzkidurak daude.**

### ANTOLAMENDUA LEHORREKO INGURUNEAN. ANTOLAMENDU-KATEGORIAK

Sopelako itsasertza proposatutako honako bi kategoriatan jasota dago:

#### **a. Babes Berezia (EP).**

**Meñakozeko hondartzak (Barrika/Sopela)** Irizpide orokorra da ekosistemaren kontserbazioa, esku-hartze antropikoa mugatuta, bere ezaugarri morfodinamikoaren kontserbazio zorrotza eta bertako landarediaren kontserbazio aktiboa sustatuta. Hondartza naturalei dagokienean, antolatze irizpidea honako hau da: batez ere ingurunearen eta paisaiaren kalitatea mantentzea, bertako kalitatea mantentzea eta gordetzea edo zer gauzaren gainetik jarrita, eta ingurunea eta paisaiaren narriaduragatik hondartzaren eta bere ingurunearen izaera naturala galtzea saihestea ahalegintzea.

#### **b. Erabilera bereziko zonak (UE)**

**Atxabiribil/Arrietara (Sopela) eta Solandotes, Bariñatxe edo Salvaje (Sopela/Getxo).** Kategoriatu honen barne sartutako hondartzek, Kostaldean araudian aurreikusitako erabilera guztiak onartuko dituzte. Orokorrean, hondartza hauetan, itsasora heltzeko bideak, eta itsasoko eta lehorreko jabari publiko zonetatik kanpoko aparkalekuak aurreikusi beharko dituzte. Denboraldiko zerbitzuak, bainulekuen segurtasuna eta erabiltzeko beste hainbat baldintzen gaineko eskaerei erantzuteko garaian, eta birsortzeko obren proiektuetan lehenetsia izan behar dute hondartza hauek.


### ANTOLAMENDUA ITSAS INGURUNEAN

Sopelako hondartzak: Azkorri/Arrigunaga/Ereaga, 200 metroko zerrendan, aisiarako eta atsedenerako dira, bereziki erabilera publiko estentsiboko eremuak.

### SOPELAKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

Sopelako hondartzak aisiarako eremu dira (11. Gidalerroa, 2. eranskina), eta planoan adierazitako eragina Sopelako nukleoa eta Babes Berezia Zorrotz antolatutako labar-eremuaren gertutasunagatik ematen dena da.






#### 4.8. EAE-KO ITSASERTZA BABESTU ETA ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN BERRIKUSPENA, KLIMA ALDAKETAREN ERRONKARI EGOKITZEKO

Indarrean dagoen EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatze LPSaren eremu geografikoa edo lurralde eremua 500 m zabaleko azterketa-zerrendan oinarritzen da, egungo Itsasoko eta Lurreko Jabariak zehazten duen lerrotik abiatuta. Dena den, egokiagoa dirudi hasierako eremu gisa 2/2013 Legearen (Itsasertzaren babesari eta erabilera jasangarriari buruzkoa, eta Kostaldei buruzko 22/1988 Legea aldatzen duenaren) Eragin Eremua hartzea. Alde batzuk ditu aurreko irizpidearekin alderatuta; izan ere, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoak (ILJP) zehazten duen lerrotik hasita neurtzen da eragin eremu hori. Itsas-labarrak dauden eremuetan, aldaparen goiko aldean kokatzen da lerro hori, eta ez ura ukitzen duen eremuan. Bestetik, “Klima-aldaketaren erronkari egokitzeko EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren berrikuspenarako eta egokitzapenerako aurretiazko azterketak eta diagnostikoa” lanean, **indarrean dagoen LPSan erabilitako zerrendaren antzekoa erabili zuten, baina 1.600 m-ko zabalerakoa, klima-aldaketak eragindako itsas mailaren igoeraren arazo guztiak landu ahal izateko.** Lan horren hasieran ez zen ezagutzen arazo horren irismena.

LPSren Aurrerakinak hainbat proposamen egiten ditu klima-aldaketara egokitzeko, baita itsasertza babesteko eta antolatze ere.

##### KLIMA ALDAKETARI EGOKITZEKO PROPOSAMENAK

Aurrerakinean klima-aldaketari egokitzeko egindako proposamenak ezberdinak dira Hiri Eremuaren edo Landa Eremuaren kasuan. Era berean, proposamen ezberdinak egin dira aztertutako klima-aldaketaren eraginaren arabera: itsas mailaren igoeraren eraginak, ekaitzetan zehar euriteen intentsitatea igotzearen eraginak edo bero-uharteak areagotzearen eraginak.



**PTS PROTECCIÓN Y ORDENACIÓN DEL LITORAL - t.m. Sopela**

Categorías de mejora o protección de los activos naturales

- Áreas de mejora de ecosistemas
- Especial protección compatible
- Especial protección estricta

**Landa Eremuan itsas mailaren igoerak du eraginik handiena. Batez ere, paduretan, dunetan eta hondartzetan oinarritzen da eragin hori.** Zalantzarik gabe, itsas-labarretan eta itsasadarren urertzetan ere nabaritu da inpaktua, baina neurri txikiagoan. **Aurrerakinean proposatutako Landa Eremuko irtenbideei dagokienez, Sopelari gehien eragiten diotenak hondartzetakoak dira.** Itsas mailaren igoerak eragin handia izango du hondartzetan. Hala, ekinokzioaren inguruko itsasgora bizietan ia gainazal lehorrik gabe geratuko dira hainbat hondartza, eta batzuk guztiz desagertuko dira. Aurrerakin honetan ez da inolako esku-hartzerik proposatu. Izan ere, hondartza lehorra handitzeko helburuz hondarraren bolumena handitzeko esku-hartze posibleak aurrera eramateko, itsasertzeko hidrodinamikaren gaineko azterketak egin behar dira aurretik. Ekaitz handien aurrean esku-hartze horiek egonkortasuna izango dutela ziurtatu behar dute azterketek, soluzio bideragarria proposatu ahal izateko. Kasu konkretuetan egin daitezke azterketa horiek, baina Itsasertzeko LPSaren Berrikuspenerako dokumentuaren irismenetik kanpo dago hori.

**Hiri Eremuan ere itsas mailaren igoerak sortzen du inpaktu nagusia. Batez ere, uholdeak dira inpaktu horren ondorioa. Horien ondorioz sor daitezke uholdeak: marea, gehieneko marea meteorologikora arte; itsasgora altua eta olatuak; eta itsasgora altua eta ibai-uholdea.** Aurrerakinean hainbat neurri moldagarri proposatu dira uholde horiek saihesteko, eremu hauetan sailkatuta: Garatutako Eremuak, non hiria dagoeneko eraikita dagoen eta ura sartzea galaraziko duten neurriak behar diren, uholdeak saihesteko; Hiri Berroneratze prozesuan dauden Garatutako Eremuak, non uholde-kotak igotzeko aukera egon daitekeen, itsas mailaren igoeraren eragina saihesteko; eta Hirigintza Garapen Berrietarako Potentziala duten Eremuak, non itsas mailaren igoeraren inpaktu posiblearen gainetik kokatu behar diren urbanizazio-kotak, ezinbestean. Aldi berean, neurri hauek olatuaren eta ibai-uholdeen eraginetik babestu behar dituzte eremu horiek, ibaietan uretan gora arazo berririk sortu gabe.

#### ITSASERTZA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PROPOSAMENAK

1. Garai batean ugariak baina gaur egun oso urriak diren edo **EAEko itsasertzean gutxi ikusten diren zuhaitzi autoktonoak “Babes Berezik” mailan jasotzeko proposamena,** batez ere artadi kantauriarrak, honako kategoriatan jasota daudenak: “Ingurumenaren Hobekuntza”, “Basoa” eta “Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala: Trantsizioko Landa Paisaia” kategorietako artadiak, KBE batean txertatuta ez zeudenak
2. **EAEko kostaldeko hondartzen kategorizazioa.** Aurrerakinean hasiera batean hondartza guztiak “Babes Berezia” kategorian sartzea proposatu da, hiriguneetan dauden eta erabilera intentsiboa duten hondartzak izan ezik, horiek “Sistema Orokorrak. Espazio Libreak” kategorian sailkatzea proposatzen da. **Sopelako hondartzek kategorizazio bera izaten jarraitzen dute.**
3. **“Itsas Ibilbidea” trazatzeko proposamena,** LAGetan definitutakoa, Euskal Kostaldeko Itsasertzeko Ibilbidearekin (Frantziarekin) lotuko litzateke Hendaian, eta Kantauriar Itsasertzeko Ibilbidearekin Muskizen (Kobaronen). Hori Gipuzkoako eta Bizkaiko bi Ibilbide Luzetako bi zati lotuta osatzen da; zehazki, Gipuzkoako GR-121 “Talaia Ibilbidea”-ren kostaldeko zatia eta GR-123 “Bizkaiko Bira”-ren kostaldeko ibilbidea.
4. **Jaizkibelgo eta Uliako Natura 2000 Sarea dagokion itsas-ingurunera hedatzea.**



#### 4.9. HEZEGUNEAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

LPSk hiru multzotan sailkatzen ditu hezeguneak:

- I. taldea: LPS onartzen den unean Naturagune Babestu modura kontsideratutako izendapenak eragindako hezeguneak sartzen dira.
- II. taldea: hirigintzako plangintza bereziak babestutako hezeguneak eta LPSk berak zehatz-mehatz antolatutakoak sartzen dira.
- III. taldea: gainerako hezeguneak, baita artifizialak ere, inbentarioan sartuta daudenak.

**Lurralde Plan Partzialean jasotako hezegune bat ere ez dago Sopelan.**

#### 4.10. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ETA MERKATARITZAEKIPAMENDUETARAKO LURZORUA SORTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko lurzoru-kudeaketa lurraldearen arabera sailkatzeko, Sopela Leioa-Plentzia korridorean edo Eskuineko Ibaiertzean jasoko da: Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz eta Erandioren iparraldea, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak sustatzeko.

Kokapen-jarraibideei dagokienez, **Sopela hazkunde moteleko udalerritzat hartzen da**, Berangorekin, Getxorekin, Larrabetzurekin eta Urdulizekin batera.

**Plentzia-Leioa korridorean lurzoru publikoa sortzeko eragiketatzat, Eskualdeko Industrialde berria proposatzen da Sopela-Urdulizen**, 25/50 hektareakoa, lanpostuko espazio gutxi okupatzen duten industria-jarduera arinetarako.

**Merkataritza-gune handien erregulazioari dagokionez, Sopela zentraltasun handieneko udalerrria da.** Horretarako, gehieneko azalera hauek ezartzen dira:

- Gehieneko plataforma zelaituaren azalera garbia: 75.000 m<sup>2</sup>
- Gehienez eraiki daitezkeen sabai-azalera: 25.000 m<sup>2</sup>.

Merkataritza-gune handi bakoitzaren gehieneko dimentsionamenduaren gaineko muga horiek jarduera ekonomikoko poligonoan edo plataforma logistikoa instalatu daitezkeen establezimendu guztien (merkataritzakoak eta aisialdikoak, txikiak edo marka desberdinetakoak) batuketa orokorrera ere zabal daitezke.

#### 4.11. EAEKO A TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALA.

Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren xedea osatzen duten jarduketek, lurraldea egituratzen eta antolatzen duen elementu bati buruzkoak direnez, lurralde izaera nabarmena eta udalerriaz gaindiko irismena dute ezaugarri. Administrazioei dagokienez, eta zehazki udalerriei dagokienez, zehaztapen horiek lotzen dituzte euren hirigintza-ekintzak gauzatzean, eta bereziki:

- a) Plangintza orokorreko tresnetan lurzoruak zonakatzean eta kalifikatzean.
- b) Garapena antolatzeko tresnak eta urbanizazio-proiektuak egitean edo onartzean.

- c) Hirigintza egikaritzeko tresnak formulatzean edo onartzean, baita lankidetzako hirigintza erakundeen eraketa onartzean eta haien funtzionamendua babestean ere.
- d) Lurzoruen erabilera eta eraikuntza arauak eta ordenantzak egitean, horien hirigintza sailkapena edozein dela ere; eta, zehazki, lerrokadurak eta atzeraemanguneak bezalako parametroak ezartzean.
- e) Hirigintzako kontrol eta diziplina ekintzetan.


**Sopelaren kasuan, LPSetik ez da trazadurarik proiektatzen.**

#### 4.12. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZIKLETA-IBILBIDEEN PLAN ZUZENTZAILEA.

Sarea desberdinak baina osagarriak diren hiru mailatan (1, 2 eta 3) geratzen da egituratuta, eta hiru maila horien definizioan jarraitutako gainjartze hierarkikotik abiatuta horizonte sarea definitzeko erabili den metodologia ere azaltzen da; etorkizunean planteatu daitezkeen egoera administratibo eta ekonomiko-finantzarioetara egokitu daitezkeen sare proposamena da.

- **1. mailako sarea:** hiru lurralde historikoen eta inguruko autonomia-erkidegoen eta Frantziako estatuaren arteko interkonexio-funtzioa betetzen du (EuroVelorentzat alternatibo-proposamen bat eginez), eta, gainera, 25.000 biztanletik gorako herriak lotzen ditu, eta garraio kolektiboko geltoki intermodal nagusiekin lotzen ditu.
- **2. mailako sarea:** 10.000 biztanletik gorako udalerrriak eta horietan funtzionalki integratutako jarduera ekonomikoko eta enplegu-kontzentrazioko eremu nagusiak aurreko sarearekin konektatzeko helburuarekin definitua. Gainera, eremu funtzional guztiak elkarren artean lotzea ahalbidetzen du, eta horien oinarritzko artikulazioan aurrera egitea. Zallako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra 53
- **3. mailako sarea:** jarduera ekonomikoetarako lurzoria garatzeko beste eremu estrategiko garrantzitsu batzuetara zabaltzen du sarea, eta, gainera, 10.000 biztanletik beherako udalerrien sarera konektatzeko aukera ematen du etorkizunean. Era berean, sareak eremu funtzionalean garatzea errazten du.

**Sopela 2. mailako sareko ibilbidean jasota dago, zehazki 6. ibilbidean, Uribe Eskuinaldean.**




Oinarrizko sarea bizikleta-ibilbideen arabera egituratzea. EAEko Bizikleta Ibilbideen Plan Zuzentzailea.  
Oinarrizko sarea bizikleta-ibilbideen arabera egituratzea.

#### 4.13. BIZKAIKO BIZIKLETA BIDEEN 2023-2025 LURRALDE PLAN SEKTORIALA. HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUA.

Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala (BBBLPS) eraikitzeko irizpideak honako hau du oinarri: “mugikortasun eraginkorra eta arduratsua izatea eta ingurumen ertronketara eta garapen jasangarrira egokitzea, baita mugikortasun arduratsua gauzatzeko berme funtzionalak eta erabilgarriak izango dituen bizikletaren erabilera nabarmena esleitzea ere, desplazamentu motorizatu askoren alternatiba erreal eta bideragarri modura ikus dadin”. Beti ere, esku hartzeko irizpideak kontuan hartuz, hala nola segurtasuna, jarraitutasuna, norabidea, erosotasuna, integrazioa eta irisgarritasuna (Bizkaiko bizikleta bideen 10/2014 Foru Arauaren 7. artikuluan ezartzen den bezala).

Planaren Helburu den Sareak (PHS) 349,7 km-ko luzera du guztira, eta 5 linea nagusik osatzen dute, 121,1 km-ko luzerarekin guztira:

- L1; Nerbioi Ibaizabal, Arratia, Durangaldea (42,7 km)
- L2; Txorierri, Mungialdea (18,5 km)
- L3; Eskuinaldea, Uribe Kosta (16,2 km)
- L4; Ezkerraldea, Meatzalde, Enkarterri (24,3 km). Haren parte da Zalla.
- L7; Bilbo (19,4 km)



Eta 20 Bigarren Mailako Linea, aurreko 4 Linea Nagusiak osatzen dituzten bigarren mailako ardatzekin bat datozenak (5 L1ean, 2 L2an, 6 L3an eta 5 L4an), eskualde berrietarako proiektzioa ahalbidetuz, eragin-eremua zabalduz eta kapilaritatea emanez.



Horiekin batera, beste bi Linea edo Bigarren Mailako Ardatz handi daude PHS osatzen dutenak:

- L5; Urdaibai (22,7 km), Muxikara doan adar batekin
- L6; Artibai (19,9 km), bi adarrekin, bata Kareaga industrialdera (Markina-Xemein) eta bestea Etxebarria

Gaur egun, sare horren 151,6 km eginda daude (%43,4) eta 198 km egiteke (%56,6).

RED FORAL DEL PTSVCB	Red Foral Total (% sobre el total de la ROP/Linea)	Foral Eje Principal (% sobre el total foral/linea)	Foral Eje Secundario (% sobre el total foral)	Foral Ejecutado total (% sobre el total foral)	Foral Ejecutado Eje Principal (% sobre el total foral ejecutado)	Foral Ejecutado Eje Secundario (% sobre el total foral ejecutado)
<b>TOTALES</b>	<b>132.228</b> 36,2%	<b>61.423</b> 46,5%	<b>70.805</b> 53,5%	<b>47.173</b> 35,7%	<b>27.632</b> 58,6%	<b>19.541</b> 41,4%
L1 (NERBIOI / IBAIZABAL / ARRATIA / DURANGALDEA)	<b>51.757</b> 37,1%	<b>28.883</b> 55,8%	<b>22.874</b> 44,2%	<b>7.212</b> 13,9%	<b>6.143</b> 85,2%	<b>1.069</b> 14,8%
L2 (TXORIERRI / MUNGIALDEA)	<b>14.698</b> 37,8%	<b>10.277</b> 69,9%	<b>4.421</b> 30,1%	---	---	---
L3 (ESKUMALDEA / URIBE KOSTA)	<b>9.330</b> 23,7%	<b>3.454</b> 37%	<b>5.876</b> 63%	<b>5.140</b> 55,1%	<b>3.454</b> 67,2%	<b>1.686</b> 32,8%
L4 (EZKERRALDEA / MEATZALDEA / ENKARTERRI)	<b>40.379</b> 46,8%	<b>18.809</b> 46,6%	<b>21.570</b> 53,4%	<b>31.151</b> 77,2%	<b>18.035</b> 57,9%	<b>13.116</b> 42,1%
L5 (URDAIBAI)	<b>10.829</b> 47,6%	---	<b>10.829</b> 100%	<b>3.670</b> 33,9%	---	<b>3.670</b> 100%
L6 (ARTIBAI)	<b>5.235</b> 27%	---	<b>5.235</b> 100%	---	---	---
L7 (BILBAO - GRAN INTERCOMUNICADOR)	---	---	---	---	---	---

Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Gauzatutako Foru Sarea.

#### 4.14. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN HIRUGARREN PLANA 2017-2028.

63/2020 Dekretuak, maiatzaren 19koak, 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartu zuen.

Bizkaian, Errepideen Bigarren Plan Orokorrean berrikusitako plangintzatik, egiteke geratu direnetatik, zenbait jarduketa egin beharko dira. **Batek ere ez du eraginik Sopelan.**

#### 4.15. EUSKADIKO 2030ERAKO GARRAIO JASANGARRIAREN PLAN ZUZENTZAILEA.

**2.1.2 jarduera ildoan**, lurzorua erabileren eta iraunkortasun ekonomiko, ingurumeneko eta sozialeko irizpideen arabera mugikortasunaren plangintza integratua bultzatu nahian, **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Hiri Mugikortasuneko Planekin** eta industrialde eta gune teknologikoetako Mugikortasun Planekin **integratzea** proposatzen da.

**2.2.1 jarduera ildoan**, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako garraio eredu iraunkorrago baterantz aurrera egiteko eta bizi kalitate hobea sustatzeko, honako hau proposatzen da: **udalerrietako Mugikortasun Planetan aurreikusitako ekimenen ezarpena sustatzea.**

**2.2.5 jarduera ildoari** dagokionez, hirigune nagusietarako sarbidean ibilgailu pribatuen trafikoaren presioa murriztea ahalbidetuko duten disuasio neurriak ezartzea sustatzeko, zera proposatzen da: garraiobide iraunkorrenen irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartzea, hain zuzen ere, **hirigune nagusietarako sarbidean trafikoa murrizteko, bereziki, Trafiko Mugatuko Eremuetan eta Emisio Bajetako Eremuetan.**

**2.3.1 jarduera ildoak** –hirietan hiri espazioak ibilgailuen trafikotik askatzen lagundu nahi duena bai oinezkoentzat, bai bizikletarentzat eta aldeko egoera ekonomikoetan garraio zerbitzu Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 31 publikoentzat erreserbatuz– **hirigune nagusiak oinezkoentzako gune bihurtzea proposatzen du, bereziki Trafiko Mugatuko Eremuetan eta Emisio Bajetako Eremuetan; eta hiriguneetako aparkalekuen kaltetan disuasio aparkalekuak martxan jartzen laguntzea.**

Landa-garapenari lagunduko dion garraio sistema eraginkorra eta kalitatezkoa eskainiz landa ingurunearen irisgarritasuna bermatzeari dagokionez, honako hau proposatzen da (**2.3.2 jarduera ildoan**): **landa-ingurunearen irisgarritasuna hobetuko duten ekintzak bultzatzea.**

Hiri-banaketako zerbitzuei buruzko udal irizpideak egokitu eta homogeneouszeko, **mugikortasun jasangarrirako jardunbide egokiak eguneratzea eta horien ezarpena sustatzea proposatzen da (2.3.3 jarduera ildoak)**. Era berean, **2.3.4 jarduera ildoak** honako hau proposatzen du: Euskadiko jarduera zentroetan garraio planen garapena sustatzea; **eskola-bide seguruak** sustatzea eta irtenbide intermodal eta jasangarrietan oinarritutako enpresen desplazamendu planetarako laguntzak ematea. Bereziki interesgarria da bike sharing eta bizikletentzako aparkalekuen antolamenduaren gisako neurrien bidez **bizikletaren erabilera** sustatzea joanetorri intermodaletan.

Azkenik, garraioan petrolioa energia alternatiboekin ordezkatzea bultzatzeko estrategiari dagokionez, energia horren etorkizuneko eskasiaren aurrean ingurumen inpaktua eta kalteberatasuna murriztuz, **3.3.1 jarduera ildoak berotegi efektuko gas gutxien isurtzen duten garraio bideak orokortzen dituzten azpiegitura proiektuei lehentasuna ematea proposatzen du.**

#### **4.16. KANTAURI EKIALDEKO DEMARKAZIO HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ZATIAREN UHOLDE-ARRISKUAK KUDEATZEKO PLANA. 2015-2021.**

Planaren helburu nagusia Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren lurralde-eremuan jarduera ordenatu eta lehenetsien multzo bat zehaztea eta justifikatzea da, uholdeek giza osasunean, ingurumenean, kultura ondarean, jarduera ekonomikoan eta azpiegiturretan dituzten ondorio kaltegarriak murrizteko uholde-arriskuko potentzial nabarmenarekin identifikatutako eremuetan.

**Sopelan ez dago Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremurik.** Hala ere, badira batzuk udala zeharkatzen duen ibai nagusiaren eremuan, Gobela ibaian, baina Bilbon, Erandion eta Barakaldon (ES017-BIZ-IBA-01 kodea) eta Getxon, Leioan eta Berangon (ES017-BIZ-03 kodea) daude.

#### **4.17. ENERGIA EOLIKAREN LURRALDE PLANA**

Behin betiko onartu zen maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez, Euskadiko parke eolikoek kokalekuak aukeratzeko jarraibide eta irizpide orientatzaileak finkatzeko tresna erabilgarria izan zedin, bai energia zein ekonomiaren aldetik, bai ingurumenaren aldetik, instalazio horien lurralde-egokitzapenik onena lortzeko, LAGen bidez indarrean dagoen antolamenduaren barruan.

**Sopela Lurralde Plan Sektorialean adierazitako kokalekuetatik kanpo dago. Horregatik, dokumentu honek ez du eraginik Sopelako hirigintza-plangintzan.**

#### **4.18. EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA (IDAZKETA LANETAN)**

Sopela Lurralde Plan Sektorialean adierazitako kokalekueetatik kanpo dago. Horregatik, dokumentu honek ez du eraginik Sopelako hirigintza-plangintzan.

#### **4.19. SOPELA URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN PLANEAN**

Sopelako mugikortasun- eta irisgarritasun-arazoei konponbidea emate aldera, ildo hauetako jarduerak proposatzen ditu Mankomunitateko Mugikortasun Planak:

##### **1. HIRI-EREMUAREN KALITATEA ETA OINEZKOEN MUGIKORTASUNA HOBETZEA.**

Hiri-eremua erakargarriagoa izan dadin ezinbestekoa da zenbait ekimen abian jartzea, alderdi hauek kontuan hartuko dituztenak:

- Zirkulazioa moteldu egin behar da auzoetan.
- Oinezkoentzako espazio eta pasealeku gehiago jarri behar dira, egitura tradizionaletan eta hirigintza-garapen berrietan.
- Oinez ibiltzeak dakartzan onurei buruz kontzientziatzeko kanpainak egin behar dira, txikienen artean, bereziki; esate baterako, “eskola-bidea” ekimena.
- Egoteko espazioak (plazak, lorategiak, parkeak). Funtsezkoak dira oinezko mugikortasunerako; izan ere, aukera ematen dute geldialdi bat egiteko, elkartzeko, egoteko eta jolasean aritzeko.

##### **2. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA**

Datozen urteetan beste estrategiaren bat jarri behar da abian irisgarritasun unibertsala lortze aldera, eta, horrez gain, gutxitasunak dituzten pertsonen elkarteek eta herritarrek adierazitako zenbait alderdi konpondu. Horretarako, bestek beste:

- Irisgarritasun Plana garatu behar da udalerrian, eta hura berrikusi
- Oinezkoentzako ibilbideak berrikusi egin behar dira, irisgarritasun-katea ez dela eteten egiaztatzeko, edozein dela gutxitasun-mota
- Herritar ororentzako sentibilizazio-tailerrak egitea, gutxitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizimoduan joan-etorriak egiteko soilik izaten dituzten zailtasunez ohar daitezten.


##### **3. GARRAIO PUBLIKOAREN KALITATEA HOBETZEA**

Garraio publikoa erabilia bidaien % 9,10 soilik egin dira. Horien artean, metroa da erakargarriena, zerbitzu publikoa erabilia egin diren bidaia guztien erdia baino gehiago metroz egin baitira. Garraibide horien ezaugarriak hobetze aldera, hona hemen proposamenak:

- Metroak zerbitzu gehiago eskaintzea, maizago jarrita; hartara, 1. lerroaren beste geltoki batzuetan duten maiztasun bera izateko.



- Autobus-sarea birmoldatzea
- Eskaeraren arabeko zerbitzuak
- Intermodalitatea hobetzea
- Autobus-zerbitzuaren kalitatea hobetzea, ez bakarrik ibilgailuen kalitatea, baita geltokien inguruko kalitatea ere (ordutegiei buruzko informazioa geltokietan, markesinak eserlekuekin eta estaliak).
- Zerbitzu berezien kudeaketa elkarbanatzea; horrela, ibilbide berberak (ibilbide-zati bat edo osorik) egiten dituzten kolektiboek garraio-ibilgailu bera erabil dezaten.
- Garraio publikoa ezagutzera ematea eta sustatzea.



Garraio Publikoak. Proposamenak

#### 4. BIZIKLETA OHIKO GARRAIOBIDETZAT BARNERATZEA

Adierazten da ezinbestekoa dela bizikleta bidezko mugikortasunaren alorrean zenbait jarduera gauzatzeko udalerrian; hona hemen proposamenak:

- Mugikortasunari buruzko ordenantza egitea, bizikletak espazio publikoan hartuko duen lekua zehaztuko duena.
- Bizikleten udal-sarea diseinatzea, lotuko dituen abiapuntuak (etxebizitzak) eta helmugak (ekipamenduak, hondartza, zerbitzuak eta garraio publikoaren geltokiak)
- Bizikleta-sare orotan gauzatu behar dira jarduera osagarriak, abiapuntuan eta helmugan aparkatzeko aukera izateko.

- Bizikletaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea sustatzea

#### 5. ERREPIDE-SAREAREN KUDEAKETA


Errepide-sarearen kudeaketa jasangarritasunaren irizpideak kontuan hartuta hobetzeko, ezinbestekoa da, besteak beste, jarduera hauek gauzatzea:

- Errepide bakoitzaren hierarkia sailkatzea, eta hierarkia horren arabera abiadura-mugak ezartzea.
- Zirkulazioaren noranzkoak berrantolatzea, bi noranzkoetako zirkulazioa jarrita. Izan ere, horrela, alferrikako itzulginguruak ez lirateke egin behar, batez ere, bizikleta bidezko zirkulazioan.
- Errepideen sekzioak aldatzea, motorrik gabeko espazioari lehentasuna emateko.
- Gurutzaguneak aztertzea, arriskutsuenak identifikatzeko eta horietan motorrik gabeko mugikortasunari mesede egingo dioten diseinu-irizpideak aplikatzeko
- Zirkulazioa moteltzea hiriarteko eta herri barruko sarean.
- Zaintza-, disuasio- eta zigor-neurriak
- Seinaleztapen eta informazio egokia

#### 6. APARKALEKUAREN KUDEAKETA

Sopelan aparkalekuaren kudeaketari dagokionez, hona hemen proposamenak:

- Bertan bizi direnen aparkaleku-eskarira egokitzea eskaintza
- Bideetako aparkaleku-plazak pixkanaka murriztea
- Hondartzetan aparkalekua antolatzea (ordainketa-sistema bere horretan utzita)
- Gutxitasunak dituzten pertsonentzako aparkalekua hobetzea
- Bizikleta bidezko zirkulazioarekin adiskidetasunez adostutako aparkalekua antolatzea (galtzadaren ezkerreko aldean eta baterian atzeraka).



Bizikleta-bideen Proposamenak Sopelarako

## 7. ERAKARGUNEETAKO MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA

Sopelan erakargune ugari daude. Udalerriko toki horietara jende asko joaten da, beraz, auto-pilaketak izaten dira horietan. Mugikortasun Planak neurri hauek proposatzen ditu, egoera horiei konponbidea emate aldera:

- Mugikortasun Planak egitea industrialderako
- Sopelanako hezkuntza-zentroetan Eskola Bide Seguruak abian jar daitezzen sustatzea.
- Kirol- eta aisialdi-jardueretarako lekuetara garapen iraunkorra errespetatuz iristeko neurriak bultzatzea; hau da, autoz joan ez daitezzen lortzeko neurriak.
- Mugikortasuna kudeatzea hondartza-sarbideetan. Espazio horietako aparkalekua antolatzearekin oso lotuta dago neurri hau.
- Bere horretan uztea TAO sistema; bizikleten mailegu-zerbitzua; oinezkoentzako eta bizikleta-erabiltzaileentzako bideak hobetzea; seinaleztapena.



# 5,

## BERRIKUSTEN DEN PLANGINTZA OROKORRA. HORREN GARAPENAREN ETA GAUZATZEAREN AZTERKETA.

Urriaren 19ko 655/1998 Foru Aginduaren bidez, Sopolako Arau Subsidiarioen betearazte-deklarazioa egin zen, BHI-147/97-P05 espedientea, behin betiko onartu zen otsailaren 18ko 95/1998 Foru Aginduak bertan behera utzi zituen eremuetan. Aipatutako lehenengo ebazpenetan atzemandako akatsak zuzendu ondoren, bidezkoa da onetsitako hirigintza-araudia argitaratzea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua eta otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 65. artikulua arabera.

Plana onartu zenean Sopolak 9.917 biztanle zituen.

Aurreko plangintza orokorraren berrikuspena beharrezkotzat jo zen bi egoera orokorrenatik:

1. Udalerrikanpoko gertakarietara egokitu beharizanak, hala nola: EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroaren 1997ko Aurrerakina; EAEko Industria Lurzoruaren Lurralde Planaren Aurrerakina; lurraldea egituratzeko eragina duten zenbait sistema orokor (Uribe Kosta konponbidea, Metropoliten Trenbidea, etab.); udalerritan mugakideen dinamika, bereziki Getxorena; eta, oro har, gizarte-dinamikaren aldaketak.
2. Udalerriaren barne gertakarietara egokitzeko beharrezana, hala nola: indarrean zeuden Arau Subsidiarioen berrikuspen-zehaztapenak; lurzoruaren kudeaketa-maila (plangintza-mailan oso garatuta eta lurzoru urbanizagarrian dentsitate ertaineko bizitegi-sektoreen garapen handia); Arau Subsidiarioetan aurreikusitako antolamenduaren arazo puntual eta espezifikoak atzematea; edo tipologia-eskaintza dagoen eskarira.

**Proposatzen diren antolamendurako oinarriko irizpideak hauek dira: batetik, berrikusten ari zirenean Arau Subsidiarioek inspiratu zituzten irizpideei eustea, udalerritan hirigune zentralizatzailea ematea, eta, bestetik, Sopela eta Larrabasterra hiriguneak lotzen saiatzea, hiri-sare sakabanatua errematatuko duen garapen-ardatzaren bidez. Bestalde, antolamendua lehendik dauden bizitegi-kokaguneen eta kostaldearen arteko erlazioa sustatzen saiatzen da, 1997ko LAGen Aurrerakinean aurreikusitako horren paralelo garapen lineala lotuta, dentsitate txikiko hiri-hedapena bultzatuta bi ardatz egituratzaileraren bidez, bata inguruko udalerrietan zerikusia duen kostaldearekiko paralelo, eta bestea perpendikularra, barruko guneak kostaldearekin lotzeko.**

**Lehendik zegoen industrialdeak kokapen eta neurri egokia zuela uste zen, Industria Arloko Planaren Aurrerakinaren jarraibideen arabera, nahiz eta Sopolako hirigunetik gertuen zegoen eremuan zenbait aldaketa egin behar zirela uste izan, tren-geltokian (metroan) esku hartu ondoren sortutako zentraltasunaz baliatzeko.**

**INGURUNE FISIKOARI dagokionez, proposamena bat dator 1997ko LAGen Aurrerakinarekin, natura-balio bereziko eremuak eraldaketatik babesteko eta mantentzeko proposamenekin.**

- **Itsaslabarrak** eta haien ingurunea.
- **Hondartza-eremuak** eta inguruak.
- **Gobela ibaia**, haren ertzak eta lurrazaleko urak, ertzetan urbanizatzea eta eraikitzea sahiesteko.
- **Urkoko ibarra**: paisaia-balio handia duelako, eta ez eraikitzea sahiesteko.
- **Munarrikolanda eta Freidimendiko gailurrak**, bereziki, **Santa Marinako haitzak**.
- **Baso autoktonokoak**: ustiapena eta erabilera tradizionalari eustea eta horiek suntsitzea edo hondatzea saihestea.
- **Kurtzio eta Munarrikolanda eremuetako paleontologia-balioak**.

**HIRI-ERABILEREI dagokienez, lurraldeko okupazio-eredua mantentzea proposatzen da, aurreikusitako eskaerak bete arte hori handitzea. Eskema zuzentzaileztat, proposamenak honakoa planteatzen du:**

- **Bizitegi-eremuak mugatzea, Larrabasterrako gunea indartuta** eta berrikusten ziren Arau Subsidiarioen kudeaketan egindako azpiegiturak aprobetxatuta.
- **Larragoitiko** lurzoru erdi-finkatuetan **industria-erabilerak kontserbatzea**. Hala ere, lurzoru horien **dimentsioa murriztu** egingo da, bai ekialdean, bai mendebaldean. Lehenengoan **hirugarren sektoreko erabileretara aldatzea proposatzen da**, eta bigarrean, aldiz, **bizitegi-jarduera planteatzen da Sopolako tren-geltokiaren ondoan**.
- **Larrabasterrako gunearen ondoko industria-erabilerak kentzea**, ingurunearekin bateraezina den jarduera lekualdatzeko aukera emanda eta Urko ibarreko espazio libreak osatuta.
- **Cientoetxe inguruan dentsitate txikiko bizitegirako hazkunde-eremuak** mugatzea.
- **Berrikusten ari ziren Arau Subsidiarioetan kudeatu ez ziren hiri-hutsuneak arautzea**, balio gabetzat jotako parametroak aldatuta.
- **Behe solairuan merkataritza-erabileren eskaintza murriztea**, horiek hirigunera mugatuta, gehiegizko azalera erabilera horiek murriztea eta ez erabiltzea ahalbidetuta, eta, ondorioz, hiriaren irudia hondatzea. Garapen berrietarako, indarrean dagoen legeria betetzeko beharrezkoa den merkataritzako erreserba egitea proposatzen da, oro har, merkataritzako behe solairuko tipologia-erakuntzarik proposatu gabe.

Bizitegi-erabileretarako lurzoruak dira proposatutako lurzoru berriaren zatirik handiena; egungo kokaguneei jarraipena ematen die, eta gehienak familia bakarreko etxebizitza isolatuak eta familia anitzekoetarakoak dira. Erabilera-dentsitateen eta eraikuntza-moten arabera, hiru multzotan sailkatuta daude, hona hemen horien kokapen-espazialaren proposamena: etxebizitza isolatuetarako eskaintza (familia bakarreko etxebizitzak eta bi familiakoak) Asu-Bareñon, Loiolan, Unamunzagan eta Zalduan aurreikusitako hedapen-eremu berrietan; familia bakarreko etxebizitza elkartuak Sopolako muinoaren hegalean, 3. Sektoreari zegozkion eremuak jasota, horren dentsitatea eta aprobetxamendua mantenduta, eta beste hedapen txiki batzuk Erripan zeuden; eta familia

anitzeko etxebizitzaren eskaintza egungo eremuetan mantentzen zen, bereziki berrikusten ari ziren Arau Subsidiarioen 2. Sektorean eta hiri-lurzoruko hutsuneetan, aurreikusitako dentsitateak eta aprobetxamenduak mantenduta.

**ZUZKIDURETARAKO, honako hau proposatzen da:**

- Espazio libreen sistema orokorra definitzea, hirigunearekin bat egin eta udalerrirako aurreikusitako biztanleriarentzako dimentsio egokia izan dezala.
- Hezkuntza-ekipamendurako lurzoruak gordetzea, bai lehen mailetarako, bai erdiko mailetarako, 1997ko LAGen Aurrerakinaren arabera.
- Kirol-ekipamendurako lurzoruak gordetzea, egungoak osatuta eta kirol-eraikuntzak egiteko aukerarekin.
- Gaur egungo kokapenak eta ekipoak mantentzea.
- Hondartzei laguntzeko eremu zabala sortzea, horiek ahalik eta hobekien erabiltzeko.
- Natura-baliabideak zentzuz erabiltzea landa-ingurunean.

**KOMUNIKAZIO-SISTEMARI dagokionez**, udalerrian proposatzen diren bide berriek ezinbesteko erreferentzia dute Uribe Kostako Korridorea osatzen duen etorkizuneko ardatz egituratzaile handian, Korridore hori udalerrian amaitzen da.

Uribe Kostako Korridorarako Plan Bereziaren proposamenak ezaugarri hauek ditu:

- Arabetaseko biribilgunea, Autobia soluzioaren azken errematea.
- Hegoaldeko saihesbidea, aurretik azaldutako biribilgunetik abiatuta, Plentziarako eta Mungiarako trafikoen etorkizuneko ingurabidea izango da.
- Hondartzetara sartzeko saihesbidea, biribilgunetik abiatuta, Zientoetxeko bidearekin lotzen dena eta bertatik Arrietara eta Azkorriko hondartzetara iristen dena.
- Bilbao-Plentzia BI-634 errepidea, bere trazadurarekin eta izaerarekin jarraitzen duena eta Barrikarako korridorearen jarraipena dena.

Asu-Bareñon aurreikusitako eremu berriak, aldi berean, egungo kokalekuetan zeuden bideekin "saretu" behar ziren. Horrela, Loroño pasealekuaren eta Akilino Arriola kaleko bidearen jarraipena proposatzen da. Bide horiek eremu berrietarantz doazen ibilgailuen zirkulazioa, eta eremu horietarako eta kostalderako oinezkoen zirkulazioa jasango dituzte.

Gaur egun okupatutako eremuek Akilino Arri-Sipiri kalearen ardatzean oinarritutako antolamendua mantentzen dute. Ardatz hori Iberreetik Irubideraino doa, eta aurreikusitako ekipamenduaren zati handia jasotzen du ertzetan, eta Sopela hiriguneko gune eta auzoak lotzen ditu. Bide hori hegoaldeko saihesbidearekin, Urkon, lotu daiteke, eta udalerrirako sarbideen aniztasuna handitu.

Aurreikusitako bidearen barruko elementu berezizat, lehenik eta behin, Arrietara itsaslabarreko pasealekua aipatu behar da. Izen bereko errepidetik abiatuta, bide-sarea ixten du Atxabiribileko errepidearekin, eta paisaia-balio eta trafikorako funtzionaltasun handiko ibilbidea da. Bide hori, era berean, hondartzarako trafikoko aparkaleku txikien osagarri eta horietarako zuzeneko



sarbideak izango litzateke. Bigarrenik, Sopelako muinoaren erlaitzeko bidea, hiri-forma itxita, beste eskala batean, baina aurrekoaren antzeko baldintzak ditu.

Trenbidearen sistema orokorrari dagokionez, aipatu behar da, tren metropolitartzat egokitzeko egin diren aldaketei esker, azpiegitura horren iragazkortasun egokia bermatu dela, kontuan izanda, bere ezaugarriengatik hura barneratzea zaila zela. Geltoki berriek, oinezkoentzako maila desberdineko pasaguneekin, erdigune berriko eremuak irekitzen dituzte eta hiri-garapeneko prozesuan jaso daitezke. Geltoki berri horiek eta garraio intermodalaren eskaera egokitzeko irtenbide bereziak behar dira. Konponbide horiek posible dira Larrabasterran eta Sopelan, eskari horien arabera antolatzen diren hiri-hutsuneak daudelako.

Hiru konexio berri proiektatuko dira trenbidearen gainean: lehena Aresti-Abaroa aldean, eremu horretan aurreikusitako hiri-hedapen berriekin lotzeko oinezko loturarekin; bigarrena, Sopela aldean, ibilgailuentzat eta oinezkoentzat, geltokiaren ondoan aurreikusitako hiri-eremu berriak garatu ahal izateko; eta hirugarrena Larrondon.

## **LURZORU URBANIZAEZINA**

Honako eremuetan banatuta dago:

### **A. BABES BEREZIKO LURZORU URBANIZAEZINA**

Eremu hauek mugatu dira:

#### **Kontserbazio zorrotzeko eremuak (P)**

- Arkeologia-intereseko eremuak. Munarrikolanda, Sahierrikolanda eta Sahierriko gailurretan daude, Berangoren mugan eta Kurtzesko aztarnategian, Ingestasen eta Kukullumendin.
- Ekologia- eta paisaia-intereseko eremuak. Itsaslabarrak daude bere azalera osoan. Santa Marinako haitzetako karezko gailurrak ere sartzen dira.

**Kontserbazio aktiboko eremuak (C1).** Barinatxe, Arrietara, Atxabiribil eta Meñakoz hondartzak hartzen ditu, natura elementu baliotsuak direlako.

**Berroneratze eta hobekuntza eremuak (M).** Kostaldearen babeseko zortasun-eremua eta baso autoktonoek okupatutako eremu txikiak hartzen ditu, batez ere artadi degradatuak eta haltzadiak.


## B. BALIABIDEAK ZENTZUZ ERABILTZEKO LURZORU URBANIZAEZINA

Eremu hauek mugatu dira:

**Baso erabilerako eremuak (F).** Gaur egungo ekoizpeneko basoberritzeak jasotzen dira.

**Nekazaritza erabilerako eremuak (A).** Nekazaritzarako gaitasun handiko lurzoruek okupatutakoak dira, oso lur emankorrak baitira.

**Abeltzaintzarako eremuak (G).** Belardi eta larreetarako eremuak hartzen dira, malda txikia dute eta abeltzaintzarako erabil daitezke, higadura-arriskurik gabe.




Arau Subsidiarioak. Lurzoru-saikapenaren eta lurzoru urbanizaezinen antolamendu-planoa

### LURZORU URBANIZAGARRIA

Guztira 6 eremu proposatzen dira, honako hauek:

SEKTOREA	ETXEBIZITZA-ESKEINTZA	BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK
LOIOLA	90	23
ZALDU	118	29
ASU	173	50
BAREÑO	172	50
RIPA	170	136
ABARO	520	520
	1.243	808 (*)

(\*) babes publikoko etxebizitzaren erreserbak Etxebizitzaren arloko Premiazko Neurriei buruzko 17/1994 Legeari erantzuten dio.



Arau Subsidiarioak. Lurzoru urbanizagarriaren antolamendu-planoa: mugaketa eta banaketa-areak.

## HIRI-LURZORUA

Hiri-lurzorua eremu hauetan banatzen da:

- a. Berrikusten ziren Arau Subsidiarioetan ezarritako parametroak eta mugaketak mantentzen dituzten eremu homogeneo finkatuak.
- b. Aurreko Arauetan zehaztutako sektoreak Plan Partzialen bidez antolatutako areak. Horietan, orube libreak kasuan kasuko Plan Partzialak horietako bakoitzerako ezarritako zehaztapenak jarraituta eraikiko dira.
- c. Hiri-lurzorua barruko eraikuntzarik gabeko eremuak, garapen berrietarako erabiltzen eta egungo guneen errematea direnak. Eremu horietako kudeaketa egikaritze-unitateen bidez ezartzen da. Babes publikoko etxebizitzetarako % 20 gorde behar duen egikaritze-unitate berri bat soilik mugatzen da, 1996ko ekainaren 24ko zirkularrean, etxebizitzaren arloko premiazko neurriei buruzko 17/1994 Legea aplikatzeko irizpideei buruzkoan ezarritako baldintzak beteta, honako hau da unitatea:

Egikaritze-unitatea	Etxebizitza-eskaintza	Babes Publikoko Etxebizitzak
9-1	306	62

Gainerako egikaritze-unitateak berrikusi ziren Arau Subsidiarioetatik zetozen, egikaritze-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin.

- d) Sistema orokorretarako eremuak, hiri-lurzoruan lurraldearen egitura orokorraren eta organikoaren elementuek okupatutakoak.



## HIRI-LURZORUKO ETXEBIZITZA-ESKAINTZAREN LABURPEN-TAULA

EREMUA	ETXEBIZITZA KOPURUA	ERABILERA NAGUSIA
1	87	Etxebizitza kolektibo Elkartua
2	204	Etxebizitza kolektibo Elkartua
3	418	Etxebizitza kolektibo Elkartua
4	16	Etxebizitza kolektibo Elkartua
5	127	Ilarako familia bakarreko etxebizitza
6	1	Familia bakarreko etxebizitza isolatua
7	15	Familia bakarreko etxebizitza isolatua
8	30	Familia bakarreko etxebizitza isolatua
9	324	Etxebizitza kolektibo Elkartua
10	28	Familia bakarreko etxebizitza isolatua
11	46	Etxebizitza kolektibo Elkartua
12	--	Industria orokorra
<b>TOTAL</b>	<b>1.296</b>	

Hiri-lurzoruko etxebizitza-gehikuntza totala 1.234 unitatekoa da, aipatutako eremuetan 62 etxebizitza-unitate baitzeuden.

### SORTUTAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUNTZAK

Behin betiko onetsi zirenetik, indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioek honako aldaketa puntualak izan dituzte:

- ASen 2. aldaketa, Urdulizen mugari buruzkoa, irailaren 13ko 573/2001 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 187.zk, 2001-09-28)
- ASen 3. aldaketa, lehenagoko udal kanpinean (San Andres aldean) horiek eteteari buruzkoa. Horren antolamendua Plan Berezi bakarraren idazketarekin ezartzea, hori irailaren 25eko 593/2001 Foru Aginduaren bidez ezarriko da (BAO 192. zk, 2001-10-05)
- ASen 4. aldaketa, maila txikiko merkataritza-erabileraren gehienezko gainazalen banaketa eta zenbaketen gainekoa. Horren behin betiko onespena BAO 228.zk, 2001-11-28an jasota dago.
- ASen 5. aldaketa, Loiola, Zaldu, Asu eta Bareño sektoreei buruzkoa, maiatzaren 22ko 435/2003 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 131.zk, 2003-07-10)
- ASen 6. aldaketa, Sopela-Urduliz errepidetik Larragoiti industrialdera sarbideari buruzkoa, 35/2003 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 159.zk, 2003-08-22)
- ASen 7. aldaketa, Sopelako 5.2. Egikaritze-unitetari buruzkoa, abuztuaren 23ko 1156/2005 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 167.zk, 2005-09-02). Ondoren, 2005-09-19ko 178.zk BAOk akats bat zuzendu zuen, aurretik aipatutako 1156/2005 Foru Aginduaren argitaratze-datari buruzkoa.
- ASen 8. aldaketa, Urdulizekin mugan Osteiko sektoreari buruzkoa, uztailaren 3ko 909/2007 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 143.zk, 2007-07-20).
- ASen 9. aldaketa, Sopelako kirol sistema orokorretan kultura-erabilerak eta denbora emateko eta jolasteko erabilerak baimentzekoari buruzkoa, uztailaren 12ko 1184/2006 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsia (BAO 144.zk, 2006-07-28).

- ASen 10. aldaketa, hezkuntza-sistema orokorrak handitzeari buruzkoa, zehazki, Zipiriñe HLHI, edo “Zipiriñe ikastetxea” eta Sopela BHI edo “Iberre institutua”, izapidetze-fasean.

## **INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN GAUZATZE-EGOERA**

Indarrean dagoen plangintzaren gauzatze-egoerari dagokionez, bereizi egin behar dira lurzoru urbanizagarria, Arau Subsidiarioek sei sektore definitzen dituzte guztira, eta hiri-lurzorua, aldiz, 12 areatan.

### LURZORU URBANIZAGARRIA

Lurzoru urbanizagarriaren kasuan, Loiola, Zaldu, Asu eta Bareño sektoreetako urbanizazio-lanak burutu dira. Erripa eta Abaro sektoreak garatzeke daude oraindik.

Garatutako lau sektoreetan, Loiola, Zaldu, Asu eta Bareñon, Arau Subsidiarioetan adierazitako etxebizitza-kopuruari dagokionez, sektore bakoitzean baimendutakoa handitzea ahalbidetzeko aldaketak onartu ziren, hori bai, esleitutako eraikigarritasunak aldatu gabe. Hona hemen adibide bat, Zalduri dagokionez:

- Zalduko Plan Partzialaren aldaketa, Zaldu sektorean baimendutako etxebizitza-kopurua handitzeari buruzkoa, eremurako aurreikusitako eraikigarritasuna aldatu gabe, Sopelako Udaleko Osoko Bilkuran behin betiko onetsia 2010eko urtarrilaren 28an (BAO 82.zk, 2010-05-04). Gehieneko etxebizitza-kopuruari dagokionez, honako hau ezarri zen: erregistroan inskribatuta zeuden orube edo orube multzo bakoitzaren gainean kalkulatzea etxebizitzaren gehieneko kopurua, onetsitako birpartzelazio-proiektuaren arabera. Orube bakoitzaren gehieneko azalera eraikigarriaren eta eraikitako 75 m<sup>2</sup> moduluen arteko zatiduraren bidez zehaztuko zen. Gorantz zenbaki osora biribildutako emaitza, orube horretan baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua izango zen.

Hori dela-eta, aipatu beharra dago lau sektoreetan eraikitako etxebizitza libreen kopurua nabarmen handiagoa izan zela, Arau Subsidiarioetan hasieran adierazitakoa baino. Gaur egun partzela gehienak eraikita daude, baina badira oraindik orube hutsak.

Babes publikoko etxebizitza-eskaintzari dagokionez, horiek Zaldun eta Bareñon gauzatu dira. Eta neurri batean Asun.

Zaldun guztira 29 BPE etxebizitza egin dira BOE-1 eta BOE-2 partzeletan. Lehenengoz okupatzeko lizentzia 2008ko maiatzean eman zen.

Bareñon babes ofizialeko 68 etxebizitza egin dira guztira, G1 eta G2 partzelen artean banatuak.

Loiolan P-73 partzelan babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikitzeke lizentzia eskatu da.

Asun H1 eta H2 partzeletan babes ofizialeko 28 etxebizitza egin dira.

Bestalde, hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarekin eta Sopelako Udalarekin, 2021eko ekainaren 30ean, Asu sektoreko G partzelan 39 etxebizitza sustatzeko.

Garatzeke dauden bi sektoreen kasuan, Erripako Plan Partziala bere hasierako onspena izapidetzen dago, eta Abaroko Plan Partziala behin betiko onesteko izapidetzen ari dira.

Erripan 200 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta horietatik 142 BPE izango dira.

Abaroren kasuan 602 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta horietatik 490 BPE izango dira.

Aurreko datuen arabera, Arau Subsidiarioetan aurreikusitako lurzoru urbanizagarrien garapen osoa hasiera batean aurreikusitako babes publikoko 808 etxebizitzetara iristen da.

### HIRI-LURZORUAN

Hiri-lurzoruaren kasuan, garapen-maila ia osoa izan da. Arau Subsidiarioetan 1.254 etxebizitza libre aurreikusten ziren guztira (eta babes publikoko etxebizitza bat ere ez). Horietatik 1.174 etxebizitza egin dira eta beste 36 (24 libre eta 12 BOE) egikaritzen ari dira.







# 6,

## ARKEOLOGIA- ETA ARKITEKTURA-ONDAREAREN BALIOEN BABESA GAUR EGUN. EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROKO DATU BASEETAN ERREGISTRATUTAKO ELEMENTUAK.

Atal honetan, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Lege berria ezarritakoaren arabera, Sopelako plangintza orokor berriak Babestutako Ondasunen Katalogoan azaltzen diren ondasunak jaso beharko ditu, eta plangintza babesteko araudia harmonizatu behar du, Lege berriak dakartzan berrikuntzen arabera, hain zuzen ere, kultura-ondasun higiezin babesari eta horietan esku hartzeko irizpideei dagokienez.

### 6.1. ARKITEKTURA-ONDAREA

#### 6.1.1. EUSKAL KULTURA ONDAREAREN EAeko ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINAK

- 1.zk Fitxa. **San Pedro Eliza** (Alde Zaharra)
- 14.zk Fitxa. **Aresti Baserria.** (Argalutza)
- 15.zk Fitxa. **Larrondobekoa Baserria** (Artadibide)
- 30.zk Fitxa. **Villa Concha.** (Larrabasterra)
- 47.zk Fitxa. **Ruíz de Velasco Etxea.**

#### 6.1.2. TOKIKO BABESERAKO PROPOSAMENeko ONDASUN HIGIEZINAK

Tokiko intereseko kultura-ondasunak dira, babes bereziko edo ertaineko ondasunen garrantzia izan gabe, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 2.1 artikuluan aipatutako balioetakoren bat betetzen dutenak, baina soilik udal-esparruan.

- 2.zk Fitxa. **Meñakotzeko San Andres Baseilza.**
- 3.zk Fitxa. **Barreño Dorretxea.**
- 5.zk Fitxa. **Sekaukos Errota.**
- 7.zk Fitxa. **Zaltuko Errota.**
- 9.zk Fitxa. **Errotabarri Errota**
- 10.zk Fitxa. **Tambolinerrota Errota**
- 11.zk Fitxa. **Manene Goika Baserria.**
- 12.zk Fitxa. **Asu Baserria.**
- 16.zk Fitxa. **Manenebarri Baserria.**
- 18.zk Fitxa. **Otaza Goika Baserria.**
- 24.zk Fitxa. **Iturrieta Frontoia.**
- 25.zk Fitxa. **Sopela Frontoia**
- 26.zk Fitxa. **Enciso etxea.**

## 6.2. ARKEOLOGIA-ONDAREA

### 6.2.1. SAILKATUTAKO KULTURA-ONDASUNEN EAE-KO ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKO ARKEOLOGIA-GUNEAK, MONUMENTU-MULTZO KATEGORIA DUTENAK

- **MUNARRIKOLANDAKO ESTAZIO MEGALITIKOA.** Berangoren, Sopelaren eta Urdulizen mugapeetan dago eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Estazio eta Monumentu Megalitikoen Monumentu Multzoaren parte da. Kultura Intereseko Ondasun kalifikatuta daude otsailaren 3ko 25/2009 Dekretuaren bidez (EHAA,46.zk, 09-03-06). Sopelako mugapean honako hauek daude:
  - 2.zk Fitxa           **Saierriko Tumulua.**
  - 4.zk Fitxa           **Saierri Muinoako Tumulua.**
  - 16.zk Fitxa         **Munarrikolanda 1 Trikuharria**
  - 17.zk Fitxa         **Saierrikolanda 1 Trikuharria**

**BILBOKO BURDIN HESIAREN ETA DEFENTSEN MONUMENTU-MULTZOKOAK.** Abenduaren 6ko 195/2018 Dekretuaren bidez kultura-ondasun izendatu zen, eta Bizkaiko zenbait udalerritan eta Arabako udalerrri batean dago. Babestutako elementuen zati handia Sopelako mugapean dago.







## BESTE UDAL-PLANAK ETA -AZTERLANAK.

### 7.1. SOPELAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN PLANA

2010ean, Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana onartu zuen Sopelako Udalak. Egindako diagnosian oinarrituta, ondoren azaltzen diren helburuak proposatu ziren, sozialki ekitatiboa, jasangarria eta ingurumena errespetatzen duen mugikortasuna lortzeko.

Helburuak honako hauek dira:

1. Bide-segurtasuna hobetzea oinarritzko sarean.
2. Oinezkoen mugikortasuna hobetzea, segurtasun eta erosotasun baldintza handienekin egin dadin, oinezkoentzako pasabideak ezarrita, espaloiak egokituta eta irisgarritasuna bermatuta.
3. Bizikleta-sarea sortzea, hiriarteko sarearekin lotuko duen bizikletentzako hiri-sarea ezartzea, bidaientzako erakargarriak diren zentroen inguruan bizikletentzako aparkalekuak ezartzea eta intermodalitatea sustatzea.
4. Garraio publikoa, hirian garraio publikoaren zerbitzua urte osoan ezartzea.
5. Garraiobideen artean banaketa orekatuagoa lortzea, nahitaezko mugikortasunagatiko joan-etorrietan ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea lortuta, bereziki barne-mugikortasunean.
6. Aparkatzeko presioa konpontzea, batez ere zentroan, ordutegia erregulatuta.


Jarduera-proposamenak mugikortasunaren elementu hauetan egiten dira:

- Ibilgailu pribatua
- Oinezkoak eta bizikletak
- Garraio publikoa
- Aparkalekua

#### **Ibilgailu pribatuari dagokionez:**

Honako hauek dira helburuak:


- Zirkulazio pribatua neurritz kanpo haztea ekiditen du, ibilgailuen zirkulazioa “pasatzeko” kale jakin batzuetan kontzentratuta.
- Zirkulazioa baretzeko neurriak aplikatu daitezke, bide-mota bakoitzaren arabera.
- Bide-espazio gehiena oinezkoentzat eta bizikletentzat “egoteko kaleak” izatea.
- Kale gehienetan hots-kutsadura murriztea.



Proposatutako bide-hierarkia

**Garraio publikoari dagokionez:**

Hiriko garraio publikoko lerroa proposatzen da, Sopelako eremu guztiak hartuko dituen, 10,5 km inguruko luzerarekin, eta 30 minutuko maiztasuna eskaintzen duten bi autobusekin. Lerro horrek geltokia izango luke metro-geltokietan, baita poligonoaren ondoan ere.



Hiri-garraioaren zerbitzua ezartzea


### Oinez eta bizikletaz ibiltzeari dagokionez:

Jarduketa-proposamenak:

- 30eko eremua hiriguneko kale guztietara zabaltzea, “pasabideak” ez badira.
- Elizaldeko zati bat eta Landa doktorearen beste bat oinezkoentzako handitzea.
- Espaloiak handitzea ondorengo hauetan: Akilino Arriolaren azken tartea, Arriatera, Loiola Ander Deuna, Atxabiribil, Gatzarrine, Enrike Urrutikoetxea, Erripa, Artaza, Mendieta, Landa, Iberrota eta Abaro.
- Hirigunean Bizikleta Plan Zuzentzailearen proposamenei jarraipena emango dieten bidegorriak ezartzea honako hauetan: Loiola Ander Deuna, Gatzarrine, Loroño, Urgitxeta BI-2122, BI-634 eta BI-3124
- Pasoko bideetan bizikletentzako bideak jartzeko proposamena: Akilino Arriola, Olabide Zaldukanpo eta Mendieta.
- Oinezkoentzako eta bizikletentzako zubia eraikitzea Loroñotik Asuko eta Bareñoko sektore berrietara.
- Fatxaden artean 7 metro baino gutxiagoko bideak oinezkoentzat izango dira.
- Eskola bideak ezartzea.

### Aparkalekuei dagokienez:

Sabino Aranan, Mendieta, Artazan, Loroñon eta Sipurin araututako eremua ezartzea proposatzen da: 103 plaza arautu.






## 7.2. TOKIKO AGENDA 21-EN EKINTZA-PLANA BERRIKUSTEA

2020. urtean, Tokiko Agendaren Ekintza Planaren berrikuspena egin zen. Plan hori Sopolako jasangarritasunarekin duen estrategia eta konpromiso bihurtu nahi da. Planak 8 urteko indarraldia izango du. Epe horren bidez, epe laburrera, ertainera eta luzera ekintzak garatzeko eta gauzatzeko epe errealei egokitutako plangintza-tresna izan nahi da.

Ekintza batzuen bidez, udalerriko eta Uribe Kostako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-ertronkei erantzutea du helburu.



*Tokiko Ekintza Plan bat formulatzeko elementuak.*

10 ardatz dira Ekintza Plana egiteko kontuan hartzen diren oinarritzko erreferentzia-esparrua.

1. Gobernu motak: erabakiak hartzeko prozedurak bultzatzea demokrazia parte-hartzailearen bidez.

2. Ingurumen-kudeaketa jasangarritasunerantz: kudeaketa-programa eraginkorrak egitea, diseinutik hasi eta ebaluazioraino, inplementaziotik pasatuta.
3. Natura-baliabide komunak: natura-ondasun komunetarako bidezko sarbidea babestea, zaintzea eta bermatzea.
4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak: baliabideak zentzuz eta eraginkortasunez erabiltzea eta kontsumo eta ekoizpen jasangarriak sustatzea.
5. Hirigintza-plangintza eta -diseinua: hiri-diseinuan eta -plangintzan eginkizun estrategikoa hartzea eta ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, osasun- eta kultura-gaiak guztien onurarako bideratzea.
6. Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea: garraioaren, osasunaren eta ingurumenaren arteko mendekotasuna onartzea eta mugikortasun jasangarriagoak sustatzeko konpromisoa.
7. Osasunerako tokiko ekintza: herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.
8. Tokiko ekonomia bizia eta jasangarria: ingurumenari kalterik egin gabe enplegua sustatuko duen tokiko ekonomia bizia sortzea eta bermatzea.
9. Berdintasuna eta justizia soziala: komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatzea.
10. Orokorretik tokikora: bakerako, justiziarako, berdintasunerako, garapen jasangarrirako eta klima babesteko gure erantzukizun orokorra onartzea.

Lerro estrategikoetatik, honako hau azpimarratu behar da:

## **7.LE**

### **HIRIGINTZA-ANTOLAMENDU JASANGARRIA, NATURA ELEMENTUAK BABESTUTA**

#### **7.1 programa. Hirigintza jasangarriagorantz aurrera egitea**

- A 7.1.1. HAPO berria idaztea jasangarritasun-irizpideekin
- A 7.1.2. Baratze ekologikoen proiektua garatzea autokontsumorako, prestakuntzarako, bisita didaktikoetarako etab.
- A 7.1.3. Iberre auzoko hiri-berroneratze proiektua gauzatzea
- A 7.1.4. Itsasertzeko parkea garatzea, lehendik dauden bidexkak egokituta, hondartzetara oinez joateko.

#### **7.2 programa. Etxebizitza eskuratzea erraztea**

- A 7.2.1. Babes publikoko etxebizitzak sustatzea, bai araubide orokorrekoak, bai gizartekoak, bereziki, alokairukoak.
- A 7.2.2. Etxebizitza hutsak merkaturatzeko politikak garatzea.

### 7.3 programa. Kultura- eta natura-ondarea balioan jartzea

A 7.3.1. Kultura ondarea berreskuratzeko jarduketak egitea

A 7.3.2. Landabideak eta udalerriko auzobideak berreskuratzea, natura eta kultura intereseko elementuei balioa emanda (Munarri).







Bestalde, Getxoko muga, gainerako udalerriena baino txikiagoa izan arren, Sopelaren aldetik bizitegirako hiri-lurzoru finkatuarekin egiten du muga eta Getxoren kasuan aldiz, Espazio Libreen Sistema Orokorrekin. Hori dela eta, muga horrek arreta berezia merezi du.





Sopelako Udala  
Ayuntamiento de Sopela

TERRITORIO  CIUDAD SLP

TAPER